


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Guardia Zibilaren
gero eta kontrol
gehiago herri
barruan (3-5)



Hilabetekaria • 2003ko urria • V. urtea • 44. zenbakia • www.uztarria.com



**JUBILATUA,
ERRETIRATUA EZ**

Joxe Mari Iriondo 42 urte kazetaritzan jardun eta jubilatuta da (22-27)



21 sukalde eredu eta xehetasun guztiak

**zure
neurriko
prezioak**



estilodun bainugelak



hamar araketa, hamalaka armaria, aukera

**larunbat
arratsaldetan
zabalik**

7.593 euro
lortzea falta
da akziotan
'Berria'-rako
(13)

Bi azpeitiar
1.200
kilometroko
bizikleta
frogan (18)



Klik! Autorik
Gabeko
Eguna
argazkitan
(36-38)



Hi Heu!
Miguel Mari
Lapeira
(42)

uztarria

GERO ETA GUARDIA ZIBIL GEHIAGO

Azpeitian nabarmen egin du gora Guardia Zibilaren presentziak, Askatasunak Uztarriari esan dionez. Autoak eta kalean doazen herritarrak gelditzen ari dira sarri jartzen dituzten kontroletan



Uztarrria

Maiatzaren 15a. Udal hauteskundeen kanpaina. Joseba Egibar: "Ez diegu, herritarrek hala nahi ez badute behintzat, PPri, eta bere eskutik Guardia Zibilari, Lizartzako aterik zabalduko". Halaxe idatzi zien Egibarrek gutuna Lizartzako herritarrei *Tolosaldeko Hitza* egunkarian, Lizartzako EAJ-EA-ren alkategai bezala. Esan, esan zuen, baina, nola egiten da hori? Nola ixten zaizkie ateak guardia zibilei? Hortxe dago gakoa.

Azpeitian ere nabarmen egin du gora Guardia Zibilaren presentziak aspaldian Azpeitiko Askatasunak Uztarriari adierazi dionez. Herriko kaleetan gora eta behera lasai-lasai ibiltzeko ohitura hartzen ari omen dira, eta beraien paseo horiek herritarrak gelditu, identifikatu eta galderak egiteko baliatu omen dituzte. Grazia handiegirik ez dute egiten, baina zer egin behar da jarrera hori bertan behera gelditzeko? Uztarrria Azpeitiko Askatasunako kideekin egon da horretaz mintzatzen. "Guardia Zibila hemendik alde egitean gatazka gainditzeko bidean egongo ginateke", diote. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dute herritarrak "mobilizatzea" eta "udalak bere esku dauden tramiteak abian jartzea". Izan ere, "herritarrek bidaliko dituzte" guardia zibilak, Askatasunaren iritzian. "Euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzea erabakitzen denean indar okupatzaile eta zapaltzaileen presentziak desagertu egin behar du. Gatazka gainditzeko ezinbestekoa da horiek hemendik alde egitea".

"JENDEA IZUTZEKO". Askatasunak ez du inongo dudarik Guardia Zibilaren presentzia "Euskal Herriaren kontra gero eta maizago egiten diren erasoetako beste atal errepresibo bat besterik ez" dela esaterakoan. "Euskaldunon hitza eta erabakia zapaltzeko eta gure hitza isiltzeko daude hemen. Jendea izutzeko, kaleak okupatzeko. Gure eskubideak ez direla onartzen ▶▶

» eta gure herria militarki zapalduta dagoela besterik ez dute adierazten”.

Beraien aldetik eskura duten guztia egin-go dutela diote Askatasunekoek. Hasteko, telefono zerbitzu bat jarri dute martxan: telefono gorria. Han, norberari gertaturikoaren inguruan informazioa emateaz gain, edozein duda, kontsulta edo laguntza eska daiteke. 645 712 968. Pilarika egunaren inguruan ere, urriaren 12an, “mobilizazioen” bat egin nahi dute. Beraz, “deialdiei adi” egoteko esan dute.


Oraingoan, Askatasuna baino ez da mintzatu Guardia Zibilaren etengabeko presentziaren inguruan, nahiz eta dagoeneko eragozpena edo arazoa herrikoa bihurtu den.

BAKEAN DAGOENA EZIN BAKEAN UTZI

Azpeitiar asko gelditu dituzte kontroletan; tabernatan ere sartu dira

Guardia Zibilarekin azkenaldian hainbat pasarte izan dituzte zenbait herritarrek. Honatx haien kontakizunak —izenik ez dute eman nahi izan—.

• **ELASTIKOA ALDATZEN EZ ZUENARENA:** A.A.A. Prat kafetegiaren aurrean (Ara-



GARAI BATEAN ERE BAI. Sasoi batean ere, frankismo garaian edo trantsizio delakoaren garaian, ohikoa zen guardia zibilak kalean edo mendian jendartean ikustea. Argazkian —Lagun Onak Mendi Bazkunaren 50. urteurrenetik hartua— guardia zibilak Xoxoten ageri dira, 1954an, I. finalista egunean.

na kalean) gelditu zuten, uztailaren hasieran, etxetik kalera zihoala. Bi patrol zeuden hango bidegurutzera zaintzen, eta kale kan-
toi bakoitzean guardia zibil bana. A.A.A. ezagutu egin zuten guardia zibilek, beste batean egin zioten kontroletik. Halaxe entzun zituen lehenengo hitzak, gazteleraz: "Etorri, etorri! 'Hau ezagutu egiten dut eta gelditu egin behar dugu!', pentsatu dut", esan zion guardia zibilak. A.A.A.-k ere ezagutu zuen. Geldituko zutela jakinda handik zergatik pasatu zen galdetu zioten A.A.A.-ri, eta honek zera erantzun zien: "Nire herrian

lasai ibili nahi dut, eta ez naiz beste aldera joango zuek hemen zaudetelako bakarrik". Karneta eskatu zioten gero, eta bizkarrean zeraman motxilan begiratu. Horretan ari zirela, duela denbora dezente atxilotu zituzten (eta egun kalean dauden) bere lagun batzuen helbideak aurkitu zizkieten. Horiekin duen harremanaz galdetu ondoren, guardia zibil batek haiek atxilotzera bera joan zela esan zion A.A.A.-ri. Atxiloketen inguruan ari zirela aprobeztatuz, galdera egitea pentsatu zuen A.A.A.-k: "Atxiloketak egiten dituzuenean frogarrealik izaten al duzute horretarako?". Besteak: "Batzuetan bai".

Batzuetan. "Nik ezkutuko kamera bat izan dezaket hemen", gaineratu zion guardia zibilak, "eta inor konturatu gabe dena filmatu". Azkenean, bere trasteak hartu eta alde egiten utzi zioten, "ea ez garen gehiago ikusten" esanda. "Halaxe espero dut", erantzun zien A.A.A.-k.

● **TABERNA BARRUAN:** Bost tabernatik ere egin zuten sartu irtena guardia zibilek. Abuztua aurretik izan zen hura ere. "Pare bat guardia zibil sartu ziren, eta tabernan begira jardun zuten". Barruko jendea "begirazunak-eta egin zizkieten, eta lurrera begiratzen zuten". Sartu, bazterrak begiekin aztertu, eta kanpora joan omen ziren.

● **OINEZ ETA BIZIKLETAN:** M.O.A.-k ez du zorte handirik izan. Herri barruan bi aldiz gelditu du Guardia Zibilak, dagoeneko. Behin oinez, Erdi kalean; eta beste behin bizikletan, Garmendi gainean. Uda hasiera zen, eta M.O.A. Erdi kalean gora zihoan, goizeko hamaikak aldera. Patrol bat ikusi zuen kalean gora zihoala, eta bera patrolaren aldamenetik pasatu zenean, gelditzeko esan zioten. "Orduan karneta baino ez zidaten eskatu", dio. Ordu laurden bat egon ziren "karneteko datuak egiaztatzen edo", eta gero, bere bideari segitzeko esan. "Beste behin, bizikletan gelditu ninduten". Orduan M.O.A. eta bere lagun bat txirrin duan zihoazen, eta Guardia Zibilaren bi patrol bide beretik zihoazen. Bizikletakoak patrolen albotik pasatu zirenean gelditzeko esan zieten. "Orduan, karnetak eskatzeaz gain, katxeatu ere egin giztuzten, eta galderak egin". Nonbaiten militatzen zuen lagunik-edo ba ote zuten galdetu zieten, behin eta berriz, eta egia esateko, egiaztatu egingo zutela eta. Azkenean, alde egiten utzi zieten. ●

“Neure herrian lasai egon nahi dudala eta beraiek han zeudelako bakarrik beste bide bat ez nuela egingo esan nien guardia zibilei”

A.A.A.
(herritarra)



amuko zubitik Mikel Arregi



AZPEITIARTASUNAZ

Askotan entzun izan dugu jendea azpeitiarrei buruz hitz egiten. Eta gehienetan definizio bat nagusi: harroak. Inguruko herrietako jendearen arabera, harroak gara, geure azpeitiartasuna lau haizeetara zabaltzen dugun horietakoak. Beste era batera esanda: azpeitiar noak. Eta badirudi arrazoi pixka bat badutela; azpeitiar batek beti pentsatu izan du bere herria ingurukoak baino garrantzitsuagoa dela.

Harrotasuna, ordea, sana ere izan daiteke, harro egoteko arrazioak egonez gero. Eta azpeitiar batek azpeitiar izateaz harro egoteko izan ditzakeen arrazioez pentsatzen hasi naiz. Eta Izarraitz datorkit burura, autorik hartu beharrik gabe zibilizaziotik aldentzeko modua. Baina azpeitiarren batek haraino zibilizazioa eramateko saiorik egin du, saihebidarekin erditik ebaki nahian. Lehenengo arrazioak, kale. Gero, Loiola datorkit burura. Hura ere leku ederra, parke ederrak, baserriak, eraikigarri ez diren lur bakarretakoak dituen Azpeitiko au-

zoa. Baina lur ez eraikigarri horiek ez dakit noiz arte jarraituko duten horrela, bere baitan 50 milioiko etxerik izan gabe, espekulazioaren beste biktima bat bihurtu arte. Alde Zaharrak ere zer pentsaturik ematen dit, puskaka erortzen ari delako Azpeitikoak.

Eta, nola ez, guretzat hain garrantzitsua den kultura. Ia denok euskaraz hitz egiten dugu, eta nahi gabe ere euskal kultura mantentzeko ezinbesteko *pieza* gara. Baina, praktikan, arlo askotan gazteleraz bizi den herria gara: erdarazko prentsa irakurri, enpresa munduan erdaraz, osasun arloan sendagile euskaldunak apenas... Eta egoera horri modu zabalean erantzuteko gai den planteamendurik ez da nabari. Kulturari dagokionez, berriz, eraikitze lana egiteko ezinbesteko diren baliabideak falta dira; sinesgaitza bada ere, kultur etxerik ez dago gurea bezalako herri batean.

Gauza onak baldin baditugu ere, badugu zertan hobetu, harrokeriak alde batera utzita.

azketako ude Ainhoa Odriozola



NIRE ARROPA, NIRE TXAPELA

Udatik bueltan, sasoi aldaketako armairu txukunketari heldu nion. Betikoa: ezin kaxoi bat itxi, dena arropaz gainezka. Baina okerrera ez da hori; erdia baino gehiago erabiltzen ez dudana da: hau lehertu beharrean daukadalako, bestea barrena hautsita, eta bestea ez delako eramaten... Txikituko nuke moda asmatu zuen jendilajea! Orduan... Plink! bonbila piztu zitzaidan: hor noa, beso banatan arropa poltsaka bi hartuta, edukiontzi zurira. Ez dakit zuei gertatu zaizuen irakurle, baina niri jakinmina pizten zait poltsa edukiontziko bandejatxoan jartzen dudak bakoitzean... Non bukatuko du arropa horrek?

Ba orain jakin dut: hilean behin-edo kamioi bat pasatu eta edukiontzia husten du. Errenteriako Masti-Loidi poligonora eramaten da arropa (tona piloa). Han, Karitasen babeseko Sarea Fundazioa dago, eta arropa guztia sailkatu eta garbitu egiten da han. Ondoan

dagoen arropa bigarren eskuko bezala saltzen da Donostian eta Zarautzen. Gainera, beharra duenari ere ematen zaio. Berririo janzteko erabili ezin daitekeena, berriz, birziklatu eta *kotoia* egiteko erabiltzen da, industriarako garbiketa zapiak egiteko. Prozesua Sareako langileek eramaten dute, lan bat aurkitzeko edo bergizarteratzeko zailtasunak dituzten lagunek, oro har.

Nire jaka norbaitek erosiko du agian, edo behar duen batek zukua aterako dio, edota zulatutako galtzekin egindako zapiarekin garbituko du koipea mekaniko batek. Ez dakidana da txapelik bota daitekeen edukiontzira. Bota ez agian, baina nik neurea kentzen dut ekimen honen aurrean, kolpe batez onura ekologikoa eta baztertuen ongizatea bilatzen baititu. Eta eskaintzen diguten arropa-jasotze zerbitzua aipatu gabe, modaren atzaparretan erortzen garenon kontzientzia karga arindu.

hiruko txikiyen

Iban Arregi

1 AUTORIK GABE.


AEBa, XX. mende hasiera. Henry Ford, Harvey S. Firestone eta Rockefeller aliatuta. Autoen, pneumatikoen eta petrolioaren industriak aliatuta, autoaren kultura bultzatzen, hiriak autoaren arabera haziarazten, autobideak egiten, trenbideari bidea ixten. Irailaren 22an autorik gabeko eguna izan genuen Azpeitian (ere). Kontzientziazioa, heziketa, aldarrikapena. Ondo dago. Baina egunero autoaren kultura ari dira bultzatzen, ari gara bultzatzen. Eta Azpeitia ere autoaren arabera ari dira haziarazten, ari gara haziarazten. Trenari bidea itxi zaio, saihebidarearen gaia hor dago, lau bideko errepidea orain Loiola-Biden... Eta urtean behin, autorik gabe.

2 GUARDIA ZIBILA.

Egibar jeltzalea Lizartzako Udalerako alkategai aurkeztu zenean, haren helburua, besteak beste, Guardia Zibilari Lizartzako ateak ixtea zela esan zuen. Azpeitian ere alkate jeltzalea dugu, baina Guardia Zibilari ateak ixtea ez da hain erraza, bistan da; ez dago alkatearen esku bakarrik. Eta hor dabilta herrian, *txakurre baino lasaiyo*.

3 NUARBE.

Hamaika domina irabazitakoa dugu Nuarbe sokatira taldea. Hamaika omenaldi jaso ditu, hamaika aldiz eman diote sostengua herriak eta Azpeitiko Udalak. Orain erabaki zaila hartu du: ez du parte hartu Europako Txapelketan, ez duelako Espainiako bandera nahi, ez duelako Espainiako himnoa nahi. Tiraldi ona egin du, koherentea, eta inoiz baino gehiago behar du udalaren eta denon babesa. Baina jakina da: medailarik ezean...



IGERILEKU IREKIA.

Aurtengo udan egin duen beroarekin, eta hondartzak fuel olioz zikinduta zeudela, kanpoko igerilekuak harrera handia izan du; jende ugari ibili da ekaintetik iraila bitartean.



AUTOBUSAK.

Lehen ere, Azpeitia ez zen ezaguna garraibide publikoa aukeran izateagatik. Eta orain, berriz, Azpeititik Bilbora zihoan Pesaren zuzeneko autobus zerbitzua ere kendu egin dute.



IKURRINA HERRIAN.

Zumaian aspalditik dago. Azkoitian jarri dute. Donostian berriro ipini dute. Beste herri batzuetan ere badago. Azpeitian ez, gurean ez dago ikurrin handirik, ikusgai. Zergatik ez jarri bat?

zer diyo?

MEMORIA?

Aurreko udalaren azken publikazioa, beltza da azalez eta 1979-2003 *Azpeitia berria-Un nuevo Azpeitia* du izenburua, eta aurreneko orrialdean *Memoria* jartzen du; hori izan nahiean, agian. Ohiturik gaituen sarrera dugu ondoren, argazkia eta agurra, eta liburuaren jabe bakarria bihurtzen dute azaltzen dena.

Azpeitia herritarrik gabeko herria agertzen zaigu, jauntxoa eta garbiketa zerbitzua dira azpeitartasunaren haragizko gordeleku bakarrik, liburuaren arabera. Psikologo lana izango litzateke ongi aztertzea barnean agertzen den edukia, eta herritarrek hari buruz diotena.

Bertan, egunero aurrez aurre duguna erakusten digu. Argi farolen argazkiak, argitzea beren lana izanik, argirik gabe, bai polita. Bankoak edo eserlekuak hutsik, Basozabal bezala; Goenako txokoak ere bai, hutsik.

Aitonena sarrerak argazki handietan, inor ez galtzeko agian. Urrestillako eskola, VA-ko matrikula duen R-5 bat aurrean duela; surrealismoa? Eta musikoak, buru gabeak, Azpeitian buru bat nahikoa...

Orrialde bakoitzak memoria (oroimena) astintzen dit.

Amuko presa, konporta eta kanala, 24 ordutan irekirik ziren piszinak, herrian bertan. Azpeitiko pasiera ederrena zihoan, arbola artean, euterran, Gaztekoraino. *Paseo de los curas*. Urte



osoan giro onena izaten den lekutik. Pasiera naturala. Ez Lasao bideko haize korrantea.

Urolako trenan non dago *Memori* honetan?...

Udal suhiltzaileen etxea ez da esistitzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak egina eta zuzendua da. Udalak, zerbait badu, bolondresen egoeraren ardura du. Eskupekoz funtzionatzen baitu.

"*Un nuevo Azpeitia*" dio azalean, harro, gaztelera iritxi zenetik "*la villa de Azpeitia*" izan dena, "*el villo de Azpeitia*" bihurtu du.

Zertan datza Udalaren eta alkatearen lana?

Noiz edo noiz lotsatzen hasi beharrean gaude, edo inozoak gara.

“Azpeitia herritarrik gabeko herria agertzen zaigu udalaren azken ‘Memoria’-n”

“Liburuaren orrialde bakoitzak memoria (oroimena) astintzen dit”

“Noiz edo noiz, lotsatzen hasi beharrean gaude edo inozoak gara”

Pako Iriarte

akulue



Leire Ostolaza

KULTUR
MUGIMENDUEN
TRABAK

Azken urteotan herrian jende asko mugitu da kultur-talde ezberdinetako jarduerak kalera atera eta jendeari emanak izan daitezzen. Triku-festak, bertso-parrandak, poesia emanaldiak, ikastaroak, erakusketak, artisautza azokak... Milla ekintza antolatu dira kultura suspertze aldera, baina kultura parte-hartzailea beti da aurrekontuen zati ia ikustezina.

Izan ere, Azpeitian, beste herrietan bezala, telebistak funtzionatzen du, internetak, kirol emanaldiek, hamar pelikula eskaintzen dizkiguten zinema aretoek, DVDak, bideo jokoek, gune komertzial gero eta handiagoek... Eta horiek denak hortxe ditugu aukeran, nahi dugunean nahi dugunarekin erabiltzeko. Tabernak, elkarte gastronomikoak eta kafetegiak ere hortxe ditugu aisialdiaz lagunartean gozatzeko; eta horretaz gain, familia, lana eta bakoitzak dituen derri gorrezko betebeharrak.

Nahi duguna ikusi edo entzuteko botoi bat zarpateza beste lanik ez dugun garaian normala ere bada kultur jardueretan jende askok ez parte hartzea, baina informazio eta jakintzaz inoiz baino jantziago gauden garaiotan, komeniko litzake sortu, eman eta jasotzea zein aberasgarria den konturatzea eta erakustea.

galdeiez

Azpeitian euskaraz
bizi garela iruditzen
al zaizu?kartak eta www.uztarria.com-eko eztabaidieGalipot
gorria

Modan dagoela-eta, izenburu honekin natorkizue, hankapetik kendu ezinik ibili bagara ere. Bada txapapote hori baino okerragorik; alegia, txupinazo egunean zabaldu zutena. Bertan, alkandora, beso, bizkar, izter eta begiondoak erretakoak izan ziren.

Iaz, kostatuta baina idatzi bat egin nuen: joko japoniar, suziri japoniar, petardo edota nolana nahi deitzen zaien sute horiei buruz. Idatzi haren mamia segurtasun eza zela azpimarratzen nuen.

Baina baita erantzuna jaso ere, esanez "inor ez" nintzela sute horiek kritikatzeko, ez nuela informaziorik, eta ez nuela segurtasun zentzurik.

Nik, Ainhoa, esango dizut gozokiek ez dutela erretzen, eta 38 urte daramatzadala bizi honetan, eta badakidala arriskua non dagoen eta non ez. Zu gaztea zarela antzematen dut, eta segurtasunaz piperrik ez dakizula adierazten duzu zure idatzian; zure laguna, lagunaren aita, jokoak ez direla, 25 metro, hiru hesi, sei hesi, zortzi baziren ere hamaika urte, ehun metro-ra. Ja..., ja..., ja... *Papa mobila* bazen ere. Berriro diot: segurta-

sunik ez dago, eta bestela galdetu egun hartan (txupinazoan) erre zen jendeari. Iaz egun honetan Oinatzeko puntan egongo nintzela zin egin banuen ere, gezurra! Zuhatzaren puntan nengoen (Zuhutzen); baina, ziur egon, datorren urtean horrela botatzen badituzte *Kasa Blankan* (Etxe Zurin) egongo naizela.

Besterik gabe, dagokionak neurriak hartuko dituelakoan, agur bero-bero bat.

Iñaki Uranga 'Zaldiye'

Apoaren
edertasuna

Hiri handietan, festak amaitzen direnean, azterketa egiteko ohi-tura dute bai antolatzaileak izan direnek, bai oposizioa deitzen dugunak.

Aurtengo San Inazioetako jaiak pasatuak dira, eta honezker azterketa eginga izango duten ustea badut ere, iruzkin laburra egin nahi nuke.

Herriko jaiak inoiz ez ditut gustukoak izan; izan ere, ez naiz prozesioetara joaten, ezta zezenketak ikustera ere. Eta, hain zuzen, bi ospakizun horiek dira nire herriko jaietako ardatz. Badaude gauza gehiago. Nola ez

Mertxe Egiguren

(Langilea)

"Euskaraz dakiten
askok ez dute euskaraz hitz egiten."

Belarriko mina egiten du euskaraz jakin eta gazteleraz entzuteak. Zerbitzuetan bi hizkuntzak nahastuta hitz egiteko joera dago. Herri euskalduna izanik, jendeak garrantzia handiagoa eman beharko lioke euskarari".

Eba Artetxe

(langilea)

"Euskaraz bizi garela irudi-

bada! Horien artean gustuko ditudanak eta ez ditudanak: pilota partidak, kontzertuak eta abar; baina, ez naiz hasiko horiei buruzko iritzia ematen.

Soilik, Santiyo eguneko Iza rraitz pilotalekukoa aipatuko dut. Ez nintzen ekitaldian izan; beraz, ETBn ikusitakoan oinarritzen naiz (uste dut bi aldiz eman zutela). Pilotalekua beteta zegoela, jendea San Inazioaren martxa kantatzen hasi zen, aurkezleak zutitzeko keinua egin ondoren; batzuk, eskuan papera zutela —horiek ez zekitenak izango ziren—, harrotasunez ari zirelako itxura zuten.

Niri harrotasuna baino gehiago harrokeria iruditu zitzaidan, eta horixe da iruzkin honen zioa.

San Inazioaren martxa [*Inazio gure Patroi haundia Jesusen Konpaina, fundatu eta dezu armatu, ez da ez etsairik jarriko zaitzunik inñolaz aurrean gaurko egunean, nahiz betor Luzifer deabrua utzirik inperua. Zure soldaduak dirade aingeruak, zure gidaria da Jesus haundia, garaitu ditu zure konpainaik etsaiak. Ez dauka fedea ez kristau nereak ez dauka bildurrik inñungo aldetik. Inazio hor dago beti, ernai dago armetan jarria dauka konpaina, txispaz armaturik bandera zabalik gau eta egun guztiok pakea de-*

tzen zait. Ni herrian mugitzen naizen tokietan behintzat euskaraz hitz egiten da, eta nik ere hala egiten dut”.

Joxe Luis Garaia

(Jubilatua)



“Euskaraz bizi gara iruditzen zait, portzentaia handi bat behintzat bai, baina gutxi batzuk oraindik erdaraz bizi dira.

Dendatan eta udaletxean euskaraz egiten dute lan, baina epaitegian ez. Gazteek helduok baino erraza-gotzen dute erdarara. Hemen in-

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Motoren zarata neur-tzen duen araudia errespetatzeko neurriak hartzea beharrezkoa al deritzozu?

- Bai, zoratu egin behar naiz: %65
- Bai: %21
- Ez, ez dago zarata handirik: %6
- Ez, motorrean zaratarekin ibiltzea gustuko dut: %8

guruan, oro har, euskaraz bizi gara-la iruditzen zait”.

Mari Karmen Lanzeta

(etxeko andrea)



“Euskaraz bizi gara iruditzen zait.

Nik, behintzat, hala egiten dut. Toki guztietan euskaraz hitz egiten dut; bertakoek ez badakite, orduan gaztelaraz hitz egiten dut”.

Joxe Luis Aranguren

(dendaria)

“Gu euskaraz bizi gara. Lagun

artean, lanean-eta euskaraz hitz egiteko joera dugu, hornitzaileekin izan ezik, ez direlako euskaldunak. Hala ere, zenbakiak eta erdaraz erabiltzeko ohitura daukat, hala ikasi nuelako. Administrazioan eta gisa horretako lekuetan gaztelari-az hitz egitea tokatu izan zait”.

Maite Altolagirre

(etxeko andrea)

“Nik uste dut baietz. Nik neuk gaztelaniarako joera daukat, hala ikasi nuelako. Euskaraz irakurtzea asko kostatzen zait. Baina orokorrean euskaraz bizi gara iruditzen zait”.

“Segurtasunik ez dago suziri japoniarretan eta, bestela, galdetu aurtun erre zirenei”

I. Uranga ‘Zaldiye’

“San Inazioren martxa indarkeriaren apologia dela pentsatzen dut”

Jexux Arrizabalaga

“Saiatu gaitzen jende dotoreek eta bakeroz jantzitakoek goza dezaten San Inazioetan”

Carmelo Otaegi

[*zagun beti gau eta egun*] eliza-ko kantua zelakoan nengoen; orain ere haladela uste dut. Horrez gain, martxa hori —ez naiz hasiko gure santuaren balentriak kontatzen— indarkeriaren apologia dela pentsatzen dut. Beraz, uste dut, XXI. mendean gizarte zibilaren baloreak sustatu beharko genituzkeela, eta elizak bere elizkizunen lekua eliza duela, ez gizarte zibila.

Horixe da nire iruzkina.

Jexux Arrizabalaga

Leire Ostolazari

Non bizi zara Leire? Azpeitian? Benetan...?

“Handiki itxura neurrigabeko-arengatik” ezagunak diren festei buruz aritu zinen Uztarriaren azken alean. “Trajerik onenarekin” ematen diogu festei hasiera, zuk diozunez! Suziria bota ondoren ez nuen nik trajerik ikusi...!

Traje dotoreen kontua behin eta berriro aipatzen zenuen. San Inazio egunez, Meza Nagusira joan zirenen artean begira egon ondoren, sei traje kontatu nituen; beharbada hamar bat egongo ziren...! Hala ere, trajea jantzitakoak baino hamar aldiz mozkor gehiago zebilen

kaleetan; haiek, jakina festa herrikoiaz gozatuko zuten noski...; pixa egingo zuten herriko bazter guztietan, dantzatu inola ere ez...; baina orru handiak bota bai, eta aurrera, zer arraio...! Zuk aipatzen zenituen festa herriko horiek zeintzuk dira? Nik bakarra ikusten dut, eta txalotzekoa: herri bazkaria. Horrez aparte...?

Saiatu gaitzen jende dotoreak eta bakeroz jantzitakoak gozatu dezaten, beraiek nahi duten eran, baina horrek ez du inola ere esan nahi San Inaziyuek ez direla gure festak. Behar bada ez dira zureak izango, ez baitakit nongoa zaren... Nongoa zara Leire, non bizi zara?

Azpeitiar bat, Azpeitin jaio eta Azpeitin bizi dana.

Carmelo Otaegi

Autorik gabeko eguna dela eta

Autorik Gabeko Eguna dela-eta, agintarien kontzientziazio falta salatzen dugu behin eta berriz. Ondo dago. Nik ere ez dut sinesten egun bakarreko erreibindikazioetan. Baina demagun, une batez, egun horretan autobus guztiak gainezka joaten direla. Edo jendea bizi-

kletan ibiltzen dela. Landetako errotondan ez dagoela kotxe ilararik. Inor ez dela haserretzen kotxe faltagatik.

Ez al litzateke presio bide polita, agintariei zentzu horretan neurri gehiago hartzeko eskatzeko? Euren egun bateko eskaparate hutsa edukiz beteazteko modua?

Ez da gertatuko, ordea. Duzkagun bide eta aukera apurrak ere ez ditugu aprobetxatzen. Eta, askotan, antolatzen ez garelako, besterik gabe. Agintariak gaiotan beti joango dira gizartearen atzetik.

Benetan nahi al dugu kotxe gutxiagoko egunak izatea?

Azpi (Uztarria.com)

Katxondeoa

Egun batean urte osoa konponduko balitz bezala bizi gara. Urte osoan autoa erabiltzera derrigortuta gaude (geuk ere gure errua badaukagula onartzen dut!): Alde zaharra gero eta okerrago, zentro komertzialak indartzen, bizikletan ibiltzeko bidegorriak ez, komunikabideak barregarri! Zein da horren arduradun?

Kotxe rik gabeko egune (Uztarria.com)

hausnartzen

GAIA: 'Euskararen normalizazioa Azpeitian'. Euskaraz bizi al gara herrian? Udalak bakarrik gidatu behar al du plangintza? Zer paper jokatu behar du euskalgintzak?...

Oharra: hurrengo zenbakietan ere eztabaida hau sartu nahi dugu Uztarrrian; idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

UDALAREN ETA EUSKALGINTZAREN AUKERA

Baite Euskara Elkarte sortu zenean (2001eko otsailean), kritika hiru norabidetan egin beharra zegoen: kritika udalari, kritika herriko euskara taldeei eta erakundeei, eta kritika azpeitiarrei. Izan ere, ordu arte, herria hain euskalduna izan arren (%88k badaki euskaraz), Azpeitian ez ginen euskaraz bizi, udal administrazioak ez zuen euskaraz funtzionatzen, herrian ez zegoen euskara elkarterik, herrian ez zegoen euskararen normalizaziorako plan estrategikorik...

Garai hartan bertan, Azpeitian euskararen alorrean ordu arte lortutako adostasunik handiena lortu zen; Kontseiluarekin batera plan estrategikoa martxan jartzeko, hain zuzen. Planaren erabakigunea, gidaritza eta jarraipen batzordea hiru hankatan oinarrituta zegoen: udala, euskalgintza eta herriko eragileak (enpresak, komertzioak, taldeak...). Baina plan hura bertan behera geratu zen, udalak bere kasa Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) *martxan* jarri zuelako 2001eko abenduaren 2an.

Oraindik, ordea, ez du abian jarri. Oraintxe abiatu nahi du, presaka: bi urtera osatu du EBPNren Aholku Batzordea (herriko euskalgintzari eta eragileei batzordeari buruz aholkua eskatu gabe...); batzorde horretako kideei hiru astean 2004-2007ko plan estrategikoaren txosten orokor eta mardula irakurtzeko, aztertzeko eta proposamenak egiteko eskatu die, gero urriaren 23an onartzeko; eta abenduan, Azpeitira zuzenduriko 2004ko kudeaketa plana onartu nahi du. Udalak gauzak diseinatu dituen moduan, prozesu horretan —eta gero—, euskalgintzak eta herriko eragileek aholkua emateko ahalmena besterik ez dute izango.

Baina kritika ez zaio udalari soilik egin behar. Azpeitian EBPN geldirik dagoen bi urte hauetan, herriko euskalgintzak, eragileek eta euskaltzaleek plan estrategikoa martxan jartzeko ez dutelako ezer egin.

EUSKARA, DENONA. Orain, berriz, udalak EBPN abian jarri nahi duela eta, euskalgintzak eta herriko eragileek ezin dute errazera jo; hau da, Aholku Batzordean parte hartu (urtean bi bilera!), ardura osoa udalari eman, eta kito. Udalak ere ezin du besteekiko begirunerik gabe jokatu, plana gidatzeko ahalmena eta zilegitasuna berak bakarrik edukiko balu bezala. Ez al da euskara denona? Ez al dugu euskara politikatik bereizi behar?

Orain arte zer eta nola egin den eta hemendik aurrera zer eta nola egin daitekeen jakin behar da, batez ere. Egin zitekeenaren aldean, udalak gutxi egin du euskararen normalizazioaren alde azkeneko 24 urteetan (Francoren ondorengo lehen udal hauteskundeetatik), eta orain dena segituan jarri nahi du *martxan*; 2004an Azpeitiko Udala EBPNrako berriz ere Eusko Jaurilaritzaren diru laguntzarik gabe ez geratzeko, akaso?

Baina dirua ez da dena. Udal orok bere herriko arlo denak euskaraz bizitzen jartzeko gaitasunik ez du, baldin eta plan estrategikoaren erabakigunean eta gidaritzan bera bakarrik badago, udala ez dagoe-

lako horrelako gauzetarako herrian behar bezala txertatua. Azpeitian EBPN azkenean hala abiatuko balitz, hankasartzea litzateke.

EUSKALGINTZAREN ESTATUSA. Euskararen normalizazioari begira euskalgintzak herrian udalaren beharra duen bezala, udalak euskalgintzaren beharra dauka. Horrela, plan estrategikoaren kudeaketa egiteko, udalak euskalgintza ezin du hartu herriko enpresak, komertzioak, dantza edo kirol taldeak bezala, euskalgintza ezin du maila berean jarri, orain Aholku Batzordean jarri duen bezala. Euskalgintzari beste estatus bat ematea da logikoena, honexegatik: euskararen alorrean, ikuspegi, helburu eta jarduera aldetik euskalgintza eta aipatutako eragile horiek denak ez dira berdinak. Izan ere, euskalgintzaren ikuspegiak herri osoa hartzen du, eta eragile horienak ez, bakoitzak berea baizik. Normalizazioari begira, euskalgintza-

ren helburua herri osoa euskalduntzea da, besteak beste helburu horrekin sortzen dira euskara elkarteak, enpresa horiek, komertzio horiek, dantza edo kirol talde horiek euskaraz bizitzen jartzeko, eta horretara bideratzen du jarduera; aldiz, gai honetan enpresa baten helburua bere enpresa euskalduntzea da —edo ez—, komertzio batena ere bai —edo ez—, dantza edo kirol talde batena ere bai —edo ez—. Hori dela eta, errespetu osoarekin esanda, euskalgintza ez da hartu behar beste edozein sektore bezala, herriaren ardatz bezala baizik. Eta gure herrian euskalgintza esaten denean, hiru ikastetxeek, euskara taldeek, euskarazko komunikabideek eta bi euskaltegiek osatutako multzoaz hitz egin behar da; horiek sortu zuten Baite.

Beraz, "euskaldunek euskaraz bizitzeko aukera izateko (maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean)" egiten den edozein plan estrategikok, plana bera egiteko, gidatzeko, gauzatzeko eta egunero-egunero jarraipena egiteko, batik bat udalaren eta euskalgintzaren beharra dauka, eragileen laguntzarekin jakina.

Garrantzitsuena ez da planaren izena, izana baizik. Garrantzitsuena ez da markoa, koadroa baizik.

UDAL BERRIA, ESKEMA ZAHARREKIN? Azpeitiko Udalean agintean, aspaldiko partez, jende berria dago, eta elkarrizketarako talante hobea edukiko dutela esaten da. Ez dute zaila, egia esan. Baina erakutsi egin beharko dute ez dutela eskema zaharrekin segituko, eta eskema zaharrekin ez segitzea udala herrira zabaltzea da, herriko gaitan eragileekin eginez gauzak, hauei hitza eta erabaki ahalmena emanez. Azpeitian euskararen gaian arazoak izan dira azken urteetan (ez euskalgintzak sortuta). Eta gai honek, gaur egungo egoera politiko nahasi baina interesgarrian (ere), adostasuna eskatzen du. Aukera ona dago Azpeitian.

Enekoitz Esnaola (kazetaria)

EUSKARA ZABALTZEA HELBURU

Azpeitiko gizarte-ordezkaritza zabalarekin osatu da Euskara Biziberri-tzeko Plan Nagusiaren (EBPN) nondik norakoak finkatuko dituen Euskararen Aholku Batzordea. Erakunde publiko eta pribatuek elkarlanean aritzeko sortu da batzordea. Udalarekin batera, enpresa, profesional, ikastetxe, elkarte eta euskalgintzak osatzen dute Euskararen Aholku Batzordea. Lehenengo bilera, osaketa-bilera, joan den irailaren 18an egin da.

PARTAIDETZA ZABALAREKIN. Azpeitiko gizarte esparru guztietako ordezkaritzarekin osatu da batzordea. Azpeitiko enpresak: Danona, Sammic, Biele; merkataritza: Alde Zaharra Merkatarien Elkarte, UEME; Profesionalak: Martin Berasategi abokatu, Saioa Larrañaga (aholkularitza); Ikastetxeak: Ikasberri Ikastola, Iraurgi Ikastetxea, Urola Ikastola; elkarateak: Itsasi, Lagun Onak Futbol Taldea, Elizako taldeak; Euskalgintza: Baite Euskara Elkarte, Uztarría; Udala: Julian Eizmendi alkatea, Ana Mendizabal Euskara Batzordearen burua, Manuel Unanue Ogasun eta Kontuen Batzordearen burua, Pello Elorza Udal Euskaltegiaren zuzendaria eta Patxi Saez udalaren euskara teknikaria.

BATZORDEAREN EGITEKOAK. Aholku Batzordeak hiru eginkizun nagusi hartuko ditu: batetik, udalari EBPN egokitzen lagunduko dio, udalbatzak ontzat eman aurretik. Bestetik, behin plan estrategikoa onartutakoa, plana garatzeko urtez urteko gestio-planen jarraipena egingo du. Azkenik, udalaren Euskara Batzordearen eskariari jarraituz, euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertuko ditu.

2004-2007 EPERAKO PLAN ESTRATEGIKOA. Euskararen

Aholku Batzordeak beteko duen lehedabiziko lana 2004-2007 eperako, Azpeitian euskara bultzatzeko indarrean jarriko den Plan Estrategikoa (EBPN) aztertzea, osatzea eta onartzea izango da. Hain zuzen ere, 2003ko urriaren 23an batzordea elkartzekotan da berriz ere, ondorengo lau urteetarako plan estrategikoa finkatzeko eta onartzeko. Bitartean, edozein herritarrek du aukera, EBPNri buruzko edozein iradokizun egiteko. EBPNren proposamen-txostena www.erabili.com web gunean aurki daiteke eta proposamenak ere bertan egin daitezke. Udalaren asmoa EBPN ahalik eta partaidetza zabalarekin osatzea da. Gaur egun, Azpeitiko gizarte-arlo guztietako 735 erakundek (%96) azaldu dute plan estrategikoa honetan parte hartzeko borondatea.

EUSKARA ERABAT ZABALTZEA HELBURU. EBPNren helburu nagusia euskara esparru guztietara zabaltzea da. EBPN euskararen zabalkunderako neurriak hartzeko tresna da. Eta neurri horiek guztiak helburu bakar batekin: euskaldunek euskaraz bizitzeko aukera izateko (maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean). Euskara gizarteko arlo guztietara zabaltzeko, hiru lan esparru (edo helburu estrategiko) ezartzen ditu:

- 1. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak (guraso eta seme-alaben artekoak) etenik izan ez dezan lortzea.
- 2. Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
- 3. Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea. Era berean, hiru helburu estrategikook lortzeko, gizarte-arlo ezberdinetan zein neurri eta ekintza garatu behar diren zehazten ditu EBPNk.

Ana Mendizabal (Udaleko Euskara batzordeburua)

- Odontologi orokorra
- Odontologi estetikoa
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldaketa protesi finkora
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea



HORTZ KLINIKA
Antonio Rafaniello
389 Koleg.
Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36



IGAN

ETXEKO GAUZAK
tresneria, dekorazioa, opariak...

Ildefonso Gurrutxaga, 5
Tel.: 943 080374-080388



DESS

SOMIERRAK SOFAK SILOIAK KOLTZOIAK ARMAIRU



**ATSEDENA ETA DISEINU
BATERA**

24 HILABETE %0 INTERESA

A Z P E I T I A

HARZUBIA HIRIBIDEA, 5

TEL./FAX 943 15 14 4

SOFA BEHAR BADUZU, BISITA GAITZAZU

Tuko

LAGUNTZA TEKNIKOAK



**ADIN NAGUSIENTZAKO
ETA
EBAKUNTZEN ONDORENGORAKO
ALTZARIAK**

- ✓ OHE ARTIKULATUAK
- ✓ ESKAREN KONTRAKO KOLTZOIAK..
- ✓ BAINUGELEN EGOKITZAPENA
- ✓ ESKAILERAK IGOTZEKOAK...
- ✓ GURPILDUN AULKIAK



HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL.: 605 / 707984

51.600 EURO LORTUTA, 7.593 FALTA

Dendek, enpresek, taldeek, batez ere norbanakoek erosi dituzte 'Berria'-ren aldeko akzioak; udalak oraindik ez; dirua jarriko balu, helburua gaindituko litzateke

Oihana Elduaien

Zazpi hilabete igaro dira Espainiako Justiziak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. Orduetik euskarazko kazeta berria sortzeko ahalegina Euskal Herri osoan egin da; besteak beste, Azpeitian. Ahalegin horren zutabe nagusietakoa dirua biltzea da. *Euskaldunon Egunkaria*-ko langileen eskutik sortuzen Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) 5.000.000 euro biltzeko apustua egin zuen, akzio moduan. Horretarako herri bakoitzari helburu bat jarri zitzaion. Azpeitiko *Egunkaria*-ren Aldeko Batzordeari 59.193 euro biltzea egokitu zitzaion. Atez ate ibili dira akzioak saltzen, eta helburuaren %87,17 lortu dute jada; 51.600 euro hain zuzen ere. Horrenbestez, helburua betetzeko 7.593 euro biltzea falta da.

Batzordekoak "gustura" agertu dira lortutako diruarekin, baina helburua bete arte ez dutela etsiko diote. Hala ere, beraiek bakarrik ez omen dute lortuko helburua betetzea, eta "herritarren laguntza" behar dutela diote, "batez ere oraindik akzioak erosi ez duen jendearena".

UDALAREN ESKU. Euskal Herriko udal guztiei bezala, Azpeitikoari ere laguntza eskatu zitzaion (biztanleko euro bat). Udalak ez du eskariaren erantzunik eman oraindik; erantzuna baiezkoa balitz, helburua gainditu egingo litzateke.

Hala ere, "udalaren zain" ez dela gelditu behar diote, eta akzioak nahi dituenak eskura dituela. 50 euroko eta 300 euroko balioa duten akzioak daude salgai. Herrian bilakutan erosi daitezke: Uzta-rrian (943 15 03 58); eta LUBA aholkularitzan. ●



SANTIYOTAKO ZOZKETA. *Egunkaria*-ren Aldeko Batzordeak Santiyotan Peñagarikano eta Aranbururen elastikoak, afaria eta otarra zozketatu zituen. Sariekin 300 euroko akzio bana oparitu zuten. Argazkikoa Mari Karmen Arenas da; afaria eta akzioa jaso zituen. Sariak jasotzeko epea irailaren 25ean amaitu zen.



udal erabakiek

Kirol elkarte eta jarduerak diruz laguntzeko modua aldatu da

Azpeitiko Udalak, irailaren 4ko udalbatzarrean, kirol elkarteak eta jarduerak diruz laguntzeko onartutako oinarrien behin behinoko onarpenaren berri eman zuen. Aurreko legealdian onartu ziren behin behineko kirol elkarteei diru laguntzak emateko oinarriak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Alegaziorik ez dutenez jaso, orain behin betiko onartu ditu udalak.

Oinarri horiek "dirulaguntza zuzena ematea arautzeko" prestatu zituen udalak, "prozesua arrazionalizatu eta diru laguntzaren zenbatekoa udalak kirol arloan dituen helburuetara egokitzeko asmoz". Oinarrietan, bestalde, jarduera-atal desberdinak, diru laguntzen banaketarako ehunekoak eta diru laguntzak eskatzeko, emateko eta ordaintzeko prozedurak ere zehaztu dira. Oinarrien helburua, berriz, kirol talde eta elkarteei diru laguntzak emateko bideak arautzea da. Beraz, oinarri horiekin kirol elkarte eta jarduerak, ezaugarri desberdinen arabera, ehunekoak jaso eta horren arabera diru laguntza jasoko dute.

Garikoitz Ulazia

gurien...

auto gidaria

"Azpeitian auto lasterketetarako afizio handia eta ona dago"

Nerea Uranga / Garikoitz Ulazia auto gidari elgoibartarrak Azpeitiko auto lasterketak oso gustukoak ditu; gustura ateratzen da. Orain dela sei urte hasi zen auto lasterketetan, hasieran kopiloto eta gero gidari. Rallyetan ateratzen da batez ere, baina Urrakiko igoera ere egin izan du; kopiloto azpeitiar bat ibiltzen da berarekin, Xabier Beloki. Irailaren 21ean, 65 auto zeuden izena emanda Urrakiko Igoeran. Ulazia Renault Megane autoarekin atera zen, eta 15. egin zuen lasterketan.

● **Zer du Urrakiko igoerak?**

Urrakirako errepidea erditik gora nahiko tekniko da, batxeatuta dagoelako. Eta bihurguneak nahiko antzekoak dira, eta horregatik gidatzeko zailagoa egiten da.

● **Azpeitik auto lasterketetako jarraitzaile asko ditu. Nolako afizioa da?**


Azpeitian afizio handia dago auto lasterketetarako, eta afizio oso ona da. Sagasti Zahar azpian askotan jende piloak egoten da, eta egia da askotan jendeak lasterketan zoazela errespetu handia ematen duela. Baina aurten oso ondo antolatuta egon da igoera.

● **Auto lasterketa bezperan Urrakiko igoeran jendea autoarekin lasterketak egiten ibiltzen dela-eta, jendea kexu da. Zer diozu horri buruz?**

Ni ados nago kexu den jendearekin, jende asko ibiltzen delako Urrakiko bidean autoarekin; ados nago, batzuetan pixka bat pasatu egiten delako jendea.

● **Auto lasterketatan ibiltzea diru asko kostatuko da, ezta? Zuek nondik jasotzen duzue laguntza?**

Geuk bilatu eta topatu behar izaten dugu laguntza. Nik hemen inguruko laguntzaileak ditut, eta haiei esker nabil auto lasterketatan. ●



Bastida eta Azkargorta, lanpostu berrian

● **JOSE MARI BASTIDA.** He-me-zortzi urtean, eta joan den maiatza arte, Azpeitiko alkate izan da Jose Maria Bastida (EAJ). 1985ean hartu zuen alkatetza, Imanol Elias ordezkatur. Euskal Herrian alkatetzan denboraldirik handienetakoa egin duen alkatea izan da. Ekainetik aurrera, alderdi bereko, EAJko, Julian Eizmendi da Azpeitiko alkatea. Eta udal-letxeke lana utzi ondoren, lan berria du Bastidak: Gipuzkoako Foru Aldundian ari da: Industria eta Lurran. ●



● **XABIER AZKARGORTA.** Futbol entrenatzaile azpeitiarrak, joan den irailaren 12an, hiru urterako kontratua sinatu zuen Real Madrilekin. Ez, ordea, entrenatzaile bezala; klubaren nazioarteko eskolen zuzendari lanak bete-ko ditu hiru urtez Xabier Azkargortak, eta postu berriko lehenengo proiektua Mexiko DFn izango du. Dagoeneko Mexikon da Azkargorta, irailaren 18an joan baitzen hara, hiru hilabeterako. Azkargortaren hitzetan, ekin berri duen lan berri hori "proiektu anbiziotsua da, mundu guztiko lekue-tan hainbat eskola irekitzeko asmoa baitu Real Madrilek". ●



Udal Sustapeneko etxebizitzaren esleipena luze egiten ari da

Ekainean egin zen 525 herritarren artean udal sustapeneko 75 etxebizitzaren zozketa. Harrez gero Azpeitia Lantzen zozketan lehenengotik atzera, hurrenez hurren, gelditu zirenen artean etxebizitzak esleitzen ari da. Baina luze doa prozesua, batzuek ezezkoa eman eta atzekoari deitu eta esleitu gabe dauden etxebizitzak eskaintzen ari baita. Enparan kalean zozkatzeko gelditu zirenak, oraindik ere kalifikazio aldakearen zain daude.



Goiko kalen udal sustapenekoak egiteko etxea hasi dira botatzen.

pertsonajie




Mikel Labaka

Mikel Labaka Ciudad de Murcia taldeko futbol jokalariaz azpeitiarra da. Aurten joan da Murtziara, Realak utzita. Baina irailaren 7an, Ciudad de Murciarekin jokatzen zuen bigarren partidaren, min hartu zuen belaunean; barruko aldameneko lotailua hautsi zuen, eta baita meniskoa ere. Baina

medikuen azterketen ondoren jakin duenez, llo-tailu gurutzatua ez dauka puskatuta —horrek asko larrituko zukeen lesioa—. Labakari ez diote ebakuntzarik egingo, eta Zubietan egingo ditu osatze lanak, Realaren instalazioetan. Hiru hilabetez egin beharko ditu osatze lanak, eta, gauzak ondo badoazkio, Gabonetarako berriz ere Ciudad de Murciarekin ariko da jokatzen. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Urriak 20 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Iosu optikako erosketaren txartela

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIUUE



IRABAZLIE: Ane Soraluze



Ane Soraluze izan da 43. garailea. Haurtxoa dendak emandako erosketaren txartel bat irabazi du. Argazkian, Ane Soraluze —erdian— eta Haurtxoa haur jantzi dendakoak ageri dira.

“Azpeitian sokamuturrarekiko afizio handia dago, eta zezenaren aurrean ondo ibiltzen den jendea ere bai”

Andoni Mugerza
(Mutrikuko ganaduzalea)



Andoni Mugerza./ BARREN

“Literatura bizitzeko lilura moduko bat dut, literaturarekiko eta idazle batzuekiko maitasun moduko bat”

Joxean Agirre
(Kazetaria eta idazlea)

Joseba Albizu, Italian denboraldi ona eginda, Euskal Herrira etortzeko gogoz da

Nerea Uranga / Uztarriaren azken zerbaki hau kaleratzerako, Joseba Albizuk aurtengo txirindularitzako denboraldia amaituta izango du, urriaren 3an amaitu baitzuen. Denboraldi bikaina egin du Albizuk Italiako Mercatone Uno-Scanavino taldearekin.

Albizuk Italiako taldearekin eman zuen iaz txirindularitza profesionalerako pausoa, eta baita profesional mailako lehen garaipena lortu ere. Abuztuaren 30ean Giro del Friuli 2003 irabazi zuen. Uztarriak denboraldia bukatzeko egun gutxi falta zirela hitz egin zuen Albizurekin, eta pozik zen azpeitiarra. “Aurten egin dudana denboraldiaren balantzea positiboa da. Emaitzak lortu ditut, eta, gainera, etxetik kanpo egon naize-

nez, asko ikasi dut. Heldu egin naiz, eta oso gustura nago”, dio Albizuk.

Baina denboraldiaren bukaera bezperatan Italiako taldearekin zer gertatuko, hor dago gako. Izan ere, Euskaltel-Euskadi taldeak eskaintza egin dio, baina Albizuk gaur egungo taldearekin bi urterako kontratua dauka sinatuta. “Urriaren hasieran jakingo dut hemengo taldeak aske uzten nauen eta Euskaltelera pasatzeko aukera daukadan. Mercatone Uno taldea jarraitu edo ez dago, zalan-tzan, hala ari dira behintzat irailaren hasieratik”. Albizuk Euskaltel-Euskadira etorri nahi du, baina ez dago bere esku. “Euskaltelek egutegi ona eskaini dit, eta froga garrantzitsuak korritzeko aukera. Gainera etxe in-



Joseba Albizu, Giro del Friuliko garaipena lortu zuenean.

“Euskaltelek egutegi ona eta proba garrantzitsuak korritzeko aukera eskaini dit”

Joseba Albizu

guruan froga gehiago korritzeko aukera izango dut. Aurten, aldiz, Italian korritu ditut karrera ia denak, eta Euskal Herrian Euskal Bizikleta besterik ez dut egin. Gainera, bost egunetako frogak egiteko eta emaitza hobekak lortzeko aukera izango nuke”, dio. •

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

Bainuak eta bainu osagarriak
ESKAINTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak

ITURRALDEIturgintza, S.L.

AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale. 1 - Behea
Tfnoa/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA

motxien

Bilbora Pesaren zuzeneko autobusik ez

Azpeitia-Bilbo Pesaren zuzeneko autobusak kendu egin dituzte. Eta Gipuzkoako Diputazioak Eusko Trenekin Azpeitia-Ermua autobus zerbitzua jarri du. Beraz, orain Azpeititik Bilbora joateko Azpeitian Eusko Tren hartu behar da Eibarreraino, eta han Bilborako Bizkaibus.

Abesbatza asmo berriekin eta kide berrien bila

Julian Barrenetxea Abesbatzak asmo berriak ditu ikasturte berrirako, eta kide berriak behar ditu. Abesbatzan parte hartu nahi duenak entsaio ordura azaldu behar du; hau da, Aitonena I-eko laugarren solairura, astelehenetan edo asteazkenetan 21:15etik 22:30era.

Bertso eskolan izen ematea

Erniarraitz Bertsozale Elkar-
teak aurtengo ikasturterako ere helduen bertso eskolak antolatu ditu. Urriaren 15ean hasiko dira Erniarraitzen lokaletan. Izena emateko telefono zenbakia: 615 70 07 66.

iraileko hiru irudiyek



NEREA URANGA



NEREA URANGA

BERRIZ ERE BAI. Ez da aurreneko aldia, ezta bigarrena ere, Urola ibaian arrainak hilda azaltzen direna. Sanjuandegiko errotonda egiteko obrek eragin ote dute?

GAMELUAK AZPEITIAN. Bi gamelu ikusi ahal izan dira Loiolara bidean, lasai ederrean belarra jaten; ez da abuztuko beroaren ondorioa, zirku batekin etorri direlako Azpeitira.



NEREA URANGA

DOINU DESBERDINAK. III. Triku Festa jaialdian parte hartu duten talde gehienak herrikoak izan dira, baina Urretxu eta Oñatitik ere gerturatu dira. Irudian, Auzoko Preskuek.



PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-81 21 67 • pildain@jct.es

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edretoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazk
altzariak lantzen ditugu

MATXIN XESTOAK

eskulangintza

- ✓ Pablo VI, 8 - 943 810 116 (denda)
- ✓ Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatua aukera handia

URBISTONDO
MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Alnitze Oruesagasti

Paris-Brest-Paris, 1.200 kilometroko bizikleta lasterketa. Mundu osoko 4.100 txirrindulari, eta tartean bi azpeitiar: Jagoba Uria *Jako* eta Josu Segurola. Abuztuaren 18an, 20:00etan eman zioten hasiera lasterketari. "Lasterketan izena emateko bi aukera daude: batetik, lasterketa 80 orduren buruan bukatzeko aukera; bestetik, berriz, 60 ordutan bukatzekoa. Guk 80 ordukoa hartu genuen, badaezpada", dio Jakok. Hala ere, uste baino lehenago bukatu zuten lasterketa, 60 ordu azpitik ibili ziren. "Ehun kilometrotik ehun kilometrora, lasterketa egin genuela ziurtatzeko, seilatu egin behar izaten genuen, guztira 14 seilu eta ustekabeko beste bi kontrol ere jarri zituzten. Batzuk lo egiten gelditzen ziren gune horietan; gure asmoa segitzea zen ahal genuen bitartean. Baina bigarren gauean lo egiten gelditu ginen", dio Josuk.

Arropak aldatu eta jan ahal izateko laguntzarako autoak eraman zituzten, Jakok emaztea eta Josuk neska-laguna. "Jateko momentuan arropa ematen ziguten, gauzez ez hozteko. Eta jatekoa prestatzen ziguten. Egurra hartu genuen, baina lagunek ere gure martxan ibili behar izan zuten, eta nekatu egin ziren. Laguntza izatea oso garrantzitsua da".

Lasterketaren zati handia gauzez egiten da, eta horrek bere arriskuak ere baditu. "Gauzez bizikletan ibiltzean bide bazterrera errazago joaten zara; nahiz eta argia eraman, ez da asko ikusten. Azken kilometroetan, jendeari logurea sartu eta abesten eta deiadarka hasten ziren, bizikleta gainean lo ez hartzeko", diote biek barrez.

Lau urtean behin egiten da lasterketa. Segurolak aurreneko aldia zuen, eta Jakok bigarrena, duela lau urte ere parte hartu baitzuen lasterketan. "Orduan bizi-



Jagoba Uria *Jako*.



Josu Segurola.

datuak

- Paris-Brest-Paris. ●
- 1.200 kilometro. ● 60 ordu.
- 4.100 parte hartzaile.
- 200 lehenen artean amaitu zuten.



kletan arazo batzuk izan nituen, eta erretiratu egin nintzen".

Ordu asko bizikleta gainean pasatzeak, bere ondoriak izaten ditu. "Ordu asko dira, eta azkenerako burua ere huts egiten hasten da. Gelditu eta ez nuen hitz egiteko gogorik izaten. Fisikoki ondo egon behar da, baina mentalki are gehiago prestatu behar da", dio Uriak.

Inguruaz gozatzeko denbora askorik ez dela izaten diote. Baina eguraldi ona izan zuten; egunez fresko, eta gauzez hotz.

Egindako lanarekin oso gustura daude biak. "Oraindik ez dugu datu ofizialik, baina 200en artean iritsi ginela uste dugu. 60 ordu azpitik ibili ginen".

Hemendik lau urtera berriro frogatzen da gogor hau egitera joango ote diren ez dakite oraindik. Baina joanez gero, egindako postu eta denborak hobetzeko izango omen da: "Pike hori...; pixka bat hobetzera joan gaitzke. Agian, jende gehiago konbentzitu dugu ordurako".

Lasterketan parte hartzeko, aurretik beste zenbait lasterketa egin dituzte. "Parisko lasterketa honetan parte hartzeko beste lasterketa batzuk egin behar dira, eta lau derrigorrez: 200 kilometroko bat, 300ekoa, 400ekoa eta 600eko beste bat". Laurak denbora tarte batean egitea eskatzen da, eta beste mila kilometroko lasterketa bat bada, aukeran; azken hori Josuk egin zuen. ●

1.200 KILOMETRO SEGIDAN

Jagoba Uriak eta Josu Segurolak bizikleta gaineke Paris-Brest-Paris 1.200 kilometroko frogatu zuten abuztuan. 60 orduren buruan bukatu zuten

Aliur
OKINDEGIA KAFETEGIA
Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Larrialdiak:
943 15 16 40

IRENE ALTUENA
Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako
Zerbitzua Dugu
Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

Egiten diren bilera, batzorde eta udal batzarretara deialdia egiten dio Udalak Habeari. Baina, beraien parte hartzea hitz hutsetan geratzen da. Udaletxetik kanpo bulego bat dute

HITZA BAI, BAINA BOTORIK EZ

Oihana Elduaich

Aurreko zenbakian udala kargu eta batzorde aldetik nola gelditu den genioen; eta Habearena zertan da? Aitzol Iparragirre, Habearen botoak kontuan hartu izan balira zinegotzia litzateke, eta Uztarriari esan dionez, udalak "lapurreta egoera aplikatzen du, baina ahalik eta erosoena bihurtzen saiatzen da, eskuetan leher ez dakion".

Udalak Habeakoei batzordeetara eta udalbatzarretara joateko deia egiten die, "baina han esaten duguna ez da aktetan jasotzen, eta ez dugu botorik", Miren Odriozola Habeako zerrendaburuak esan duenez. "Legez dauden gauzetan gu ez gara agertzen, ezertarako". Azpeitiko Udalak bulego bat eman die Sindikatu Zaharreko bigarren solairuan; Iparragirrek dionez, "beraiek argi esan bezala, udaletxetik kanpo".



Sindikatu Zaharreko bigarren pisuan du Habeak udalak utzitako lokala.

"Udalbatzarretan ere aparte-ko aulkiak eta mahaitxoak jarri dizkigute", diote. Uda osteko lehen udalbatzarrean arazoa izan zuten. "Gu aulki legeletan eseri ginen. Alboko mahai txikian jartzeko esan ziguten, ordea, berriek. Gu hitz egiten hasi ginen, bain, politikaz ez zuela eztabaidatuko esan zigun alkateak. Jaikitze edo bidali egingo gintuztela esan ziguten, bi aldiz. Udaltzaingoa ekarri zuten eta bidali egin gintuzten".

FINANTZAKETA. Iparragirrek dioenez, "bi egoerekin aurkitzen gara: udaleko parte-hartzea mugatu egiten zaigu, eta ez dugu dirurik". Izan ere, alderdiek jasotzen duen diru laguntza ez die ematen. "Orain beste komunikazio bide batzuk landu behar ditugu, eta horrek lan eta diru berezi bat eskatzen du. Herritarren borondateari esker ari gara lanean".

Bi lehentasun dituzte: "Apartheid egoera salatzea, eta gure herri proiektua aurrera eramateko nola antolatu pentsatzea. Udaletik kanpo dauden mugimenduekin elkarlanean hainbat gauza egin daitezke, eta horrela egiten saiatuko gara". ●

“Uda ondorengo lehen udalbatzarretik bidali egin gintuzten”

Miren Odriozola
(Habeako zerrendaburu)



**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net

AUTORIK GABE, AZPEITIA?



Duela hamabost egun inguru egun xelebrea bizi izan dugu Azpeitian: autorik gabeko nazioarteko eguna edo kanpaina zela-eta, hor antolatu dute zerbait hemen ere, jendeari kokoa janez, autobusak lantegietarako jarriz, ideia bat egin dezagun autorik gabe gure bizitza nolakoa izan daitekeen.

Egun berezi horiek herrialde aberats guztietan egiten dira: emakumeen eguna, langileena, amarena, hizkuntzarena, telebistarik gabearena eta ez dakit beste zenbat asmazio. Azpeitia horretan ez da salbuespena. Nik uste dut egun hauek ez dutela ezertarako balio, eta erridikuloa ere iruditzen zait Azpeitia bezalako herri batean, hemen dagoen kotxezalekeria ikusita, kotxerik gabeko egunak antolatzea. Hauek ez dira gure baitako antolakuntzak; hauek Europatik datozen kontuak dira, alor askotan gu baino *zibilizatua* goak diren Europa horretatik, eta guk itsu-itsuan irenstea baino ez dugu egiten. Gehienera ere, egun hauek balio dute pobreak ginenean nola bizi ginen ikusteko: jendea lanera oinez edo (zeukanak) bizikletan joaten zen garaiak gogoratzeko. Gero autobusak hasi ziren fabriketara, eta gero autoan launaka, astero autoak txandatu. Orain jarri zaitez Landetako stoppean, eta auto bakoitzean lagun bakar bat ikusiko duzu pasatzen. Izan gaitezen zintzoak. Gaur egun Azpeitian beti bizikletan ibiltzen den lagun bakar bat dago: Fernando *Pikua*, ez dakit karnetik ez daukalako, edo autorik gustatzen ez zaiolako; horregatik dago beti argal-argal, kolore osasuntsuarekin eta umore onez.

Autoa tresna sakratua bihurtu da gure artean. Propagandetan ez da besterik ageri: telebistan zenbat iragarki, egunkarietan zenbat orri astero auto berriei eskainiak, zenbat aldizkari kioskoetan. Hemezortzi urte bete dituenaren ametsa auto potente bat ekartzeta da, eta hiru urterako zorretan sartuko da, autorik gabe ez zarelako ezer gizarte honetan. Badira nire pisa baino garestiagoak diren autoak Azpeitian. Agintariak ere auto handietan ibiltzen dira, hemen ez duzu agintaririk ikusiko, Suedia, Danimarka eta beste herrialde askotan bezala, autobusean joaten, trenean, metroan. Beraz, publizitatearen aldetik, agintarien aldetik inoiz ez da egon garraio publikoaren aldeko jarrierarik, bizikletarena folklore hutsa besterik ez da.

Trenaren sareak atzeraka egin du etengabe Gipuzkoan urteotan. Autobusak ere galdu egin dira asko, beste batzuek mantentzen diren bitartean. Baina nor doa autobusean? Ikasleak eta zaharrak. Hemen kotxeak asko esaten du nor zaren; beraz, handia badaukazu, zeu handia zaren seinale, bizitzan ondo dohaki-

HILEKO GALDERA.

**Azpeitian,
media bezala,
zenbat auto
dago familia
bakoitzeko?**

zun seinale. Herrian zeuden denda txikiak ixten joan dira, herritik kanpo dauden hipermerkatuen mesedetan, udalak (Aldundiak, Jaurlearitzak) ez dituelako babestu, eta gero, noski, autoa behar Eroskietara joateko. Mundua egin digute autoa erosteko, autoa erabiltzeko. Milaka milioi gastatu dira autobideak egiten, autopistak, barianteak, errotondak, alfonbra gorria jarri zaio autoari gure gizartean. San Inazio bigarrenean ere Loiolara autobusean joaten dira prozesioan lehen oinez joaten zirenak. Bizikletan ikusiko ote ditugu ba hurrena?

Ez dut uste. Gure eguneroko bizitzatik urrun dagoen ametsa da autorik gabeko gizarte bat. Autoa erosteko, autoa maitatzeko hezitzen gaituzte, autoaren mende gaude egunero edozer gauza egiteko, lanera joan, umeak eraman, erosketak egin, parrandara joan. Gure eguneroko bizitzatik aparte dagoen egun bat ezartzea urtean behin inoiz ez da gauza folkloriko bat baino izango, ezertarako balioko ez duena, gauzak errotik aldatzen ez badira. Autorik gabe bizitzen erakusten ez badigute, baliabide egokiak jartzen ez badituzte, egun batean bizikleta hartzea ez da izango eguna pasatzeko modu tonto bat baino.



www.uztarria.com

Interneten lehen sarbide uztarria.com jartzeko pausoak eta modua

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.900 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA




Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Salla

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



Uztarria.com webgunearen azala./ UZTARRIA

NETSCAPE COMMUNICATOR programa edukiz gero:

- Programa zabaldu.
- Edit-Preferences.
- Category-Navigator.
- Navigator starts winth-Home page.
- Home page location: <http://www.uztarria.com>.
- OK.
- Hurrena Internet zabaltzean, lehen pantailan Uztarriaren web orria azalduko da.

INTERNET EXPLORER programa edukiz gero:

- Programa zabaldu.
- Edición-navegador de web.
- Ventana del navegador.
- Página principal.
- dirección: <http://www.uztarria.com>.
- OK.
- Modu honetaz ere, hurrena internet zabaltzean, lehen pantailan Uztarriaren web orria azalduko da.

albiste txikiyek

Uztarriaren porrako saridunak

Uztarriak Tourraren inguruan antolatutako porrako sariak banatu zituen San Inazio bezperan, txosnan. Lehen saria, 654 eurokoa, Jon Larrañagak (argazkian ezkerrean) jaso zuen; bigarrena, 327 eurokoa, Iñaki Areizagari egokitu zaio (ezin izan zuen saria jasotzera azaldu); eta hirugarrena, 163,5 eurokoa, Iñaki Egibarri.



Lehena eta hirugarrena.

'Literatuzta' 1. zenbakia salgai dago

Literatuzta-ren 1. zenbakia uztailaren 18an aurkeztu zuen Uztarria Kultur Koordinadorak eta Uztarriako bazkideen artean aldizkariaren 43. zenbakiarekin banatu zen. Orain herriko liburu dendetan salgai jarri da, hiru eurotan.

675 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Joxe Mari Iriondo

kazetaria

Kazetaritzan 42 urtez egin du lan Joxe Mari Iriondok. Loiola Irratian kontuak ematen hasi zen, eta kazetari 22 urte egin zituen han; ondoren telebistan beste 20

Nerea Uranga


Zarautzen, Joxe Mari Iriondorek bizitzeko aukeratu zuen herrian jarri zuen hitzordua Uztarriak harekin. Musika plazan, 11:00etan. Euskal Astea izanik, "aurreku txapelketa" ospatzekoa zela aipatu zuen Iriondok elkartu bezain laster. Zarautzen bizi da gauregun, Azpeitian ere bizi izan zen, Urrestillan jaiotakoa eta "bihotzez" Aratzerrekakoa da; hamahiru hilabetez gero, ama galdu eta Aratzerrekako Atxumariya baserrian bizi izan baitzen. 42 urte egin ditu kazetaritzan lanean eta orain 65 urterekin jubilazioa hartu du. Urte guztietako gorabeheretz eta inpresioez hitz egiteko gelditu zen Uztarria Iriondorekin. Hala bada, "oso taberna zalea ez" dela aitortu arren, ebaki bat hartuz taberna bateko mahaiaren bueltan aritu zen kontu kontari bi orduz.

● 42 urte egin dituzu kazetaritzan lanean. Langogorra izan al da?

42 urte konturatu gabe joan zaizkit. Lehen-go batean galdetu zidaten ea orain lana utzi eta etsiko al dudan. Lana ez dut utzi eta ez dut utziko. Hala ere, nire zalantzak baditut egunerokoarekin etsiko ote dudan; ez dut uste. Orain arte gogo horrekin nago. Lan gogorra baina oso polita izan da. Hor bada esaera bat: 'Gustuko tokian aldaparik ez'. 42 urtean sufritu ere egin dut; Loiolan beti kezkarekin emisora noiz itxiko. Telenortera lanera joan eta lan berri batekin hasi beharra, eta gero ETBko zuzendaritza bi urteko greba baten ondoren hartu nuen. Orduan Carmelo Otaegik bidalitako telegrama gordeta dut: "Hoyek dituk potroak!", esan zidan. Gero berriro euskal irratietara pasatu nintzen... Sufritu bai, baina sufritu baino gehiago gozatu egin dut beti. Eta orain sufrimenduak erabat ahaztuta dauzkat eta ▶



“Lana guztia



ez dut inoiz utziko”

► gozatu dudana daukat gogoan. Ez dira asko izango kazetaritzan ni baino gehiago gozatu dutenak. Ondo pasatu dut.

● **Loiola Irratian kontuak ematen hasi eta kazetari lanak egiten bukatu zenuen.**


1961eko abuztuaren 28an hasi nintzen Loiola Irratian, soldaduskatik etorri bezain laster. Kontabilitatea eramaten eta fonotekan zer zegoen eta zerrenda bat egiten hasi nintzen lehenengo. Gero gidoiak egiten, erredakzio lana egiten eta azkenean bertan 22 urte egin nituen.

● **Loiola Irratian lanean izan zinen zenbait garaitako unek, gaur egungo zenbait egoera ere gogorarazten dituzte. Hau da, 1965ean emisora itxi zuten urtebetez, irratia aldeko manifestazio bat egin zen...**

Fraga Iribarnek legebat atera zuen. Esaten dute, behin bazihola txoferrarekin autoan, Donostiatik Bilbora —jakina, espiazten zihonan— eta irrati batean iragarkiak euskaraz entzun zituela. Egia da Loiolari akusazio bat baino gehiago egin zizkiotela, Donostiako emisoreetatik, guk publizitatea euskaraz egiten genuela eta, hori konpetentzia desleiala zela esanez. Orduan lege bat atera zuen Fragak: Espainia osoko probintzia bakoitzean kate bakoitzeko irrati bakarrak egon behar zuela esaten zuen. Gipuzkoan bi zeuden —Donostiako Herri Irratia eta Loiolakoa— eta bietatik bat itxi egin behar zen: Loiola. Onda Media itxi egin ziguten, promes batekin: gestioa egin eta FM aterako genuela. Baina FM hemen inork ez zekien zer zen. Urtebetean jendea langabezian egon zen, ni ere bai, baina bide batez gestioak egiten, tokia topatu... Gaur egungo Loiolako irratia Ixumendiko antena, Lekuonak eta biok topatutako tokia da. Gero hara argindarra nola pasa zitekeen aztertu eta Antzuolatik jaso behar izan genuen; lau kilometro eta erdi pasa dira. Elosu gaineko hiru soziedaderekin tratua egin ondoren lortu genuen.

● **Gero noiz hasi zineten berriro emititzen?**

1966ko San Inazio egunez hasi ginen berri ere, baina arazoak genituen seinalea Ixumendira bidaltzeko. Izarraizko harrobia hartu genuen erreferentzi eta seinaleak harrobiaren kontra errebotatzen zuen eta Ixumendira iristen zen. Gero kanpaina egin genuen bazkideak egiteko, aldizkari bat ere atera genuen bazkideak eskatuz; bost mila bazkide lortu genituen. Dirua baino gehiago



laguntasun morala izan zen, eta batez ere jesuiten aurrean presio egiteko balio izan zuen. Gero hori dena martxan jarri genuenean, aldizkaria babestu zigun Azkar-ekin tratua egin genuen sintonizadoreak egiteko. Orduko irratiek artean ez zeukaten FM-rik. Egurrezko kaxa txiki batzuk ziren sintonizatzen. Etkez etxe eta baserriz baserri antena horiek egiten ibili ginen. Angel Alkainek *Sorginen Laratza* batean esan zidan “zu gure etxean izanda zaude”. Eta nik, “ni zuen etxean izanda?”, galdetu nion. “Bai, eta, gainera, han aparatu txiki bat jarri zenuen Loiola Irratia entzuteko”, esan zidan. Gu horrekin ahaztuta gaude, baina azkenean etxera, ni behintzat, pixka bat edanda itzultzen ginen; emisorea doan zen, baina etxe bakoitzean baso erdi bat-eta ematen ziguten. Esperientzia izugarria izan zen.

● **Atentatua ere izan zuen irratia.**

Beti Loiola noiz itxiko kezka horrekin ibili ginen, bai Onda Media, baita FMn ere. Bona bat ere ipini ziguten. Beste behin, petardo txiki bat ipini zuten estudioko atean; ez zeukan indarririk eta atea erre zuen. Baina, batez ere, kezka hori geneukan, noiz arte izango genuen lana han.

● **1976eko martxoaren 27an 24 ordu euskaraz jarraian saio bat egin zenuten Loiolan.**

Saiakera bat izan zen eta uste dut saiakera ondo atera zela. “Euskaraz normal ezin al dezakegu egin? Hau da, baserritarrentzako edo edozeinentzako saio normalak ezin al ditzakegu egin?”, esaten genuen. Euskara normalizatzeko saiakera egin nahi zen, baserritarrentzat, kaletarrentzat euskara normal erabil zitekeela adierazteko. Eta nik uste dut Loiola Irratiak lortu duen gauzarik onena hori izan zela. Oso esperientzia polita izan zen 24 ordu euskaraz saioarena. Orduan baimena ofizialki eskatzeko Madrilera joan behar izan genuen. Jose Mari Satrustegi euskaltzainak Jose Maria Areiltza Espainiako Kanpo Harremanetako ministroa ezagutzen zuen eta haren bidez erraz lortuko genuela-eta joan ginen. Orduan Madrilen Areiltza ministroaren autoan ibili ginen; inola ez nuen nik pentsatuko inoiz ministro baten autoan ibiliko nintzenik!

● **1975ean, 22 urtez irratian lan egin ondoren, telebistarako pausoa eman zenuen. Nolatan?**

Telenorten lan egiteko sortutako aukerari

“Lana ez dut utzi eta ez dut utziko. Hala ere, nire zalantzak baditut egunerokoarekin etsiko ote dudan; ez dut uste”

“Loiolari akusazio bat baino gehiago egin zizkioten Donostiako emisoreetatik, guk publizitatea euskaraz egiten genuela eta”

“Loiola Irratian bazkideak egiteko kanpaina egin genuen eta horretarako aldizkari bat ere atera genuen; bost mila lortu genituen”

baiezkoa eman nion. Irratian urte batzuk egin nituen eta goiak eta beheak, izkina denak jota nengoen. Nire burua pixka bat oxigenatzeko oso gustura hartu nuen eskaintza.

● Zer lan egiten hasi zinen Telenorten?

Euskalerrria izeneko asteroko saioa zen. Oso bitarteko gutxirekin egiten genuen. Zeluloidean egiten zen, 16 milimetrotan. Lan taldea ere txikia zen eta gaiak euskal kulturari lotutakoak izan behar zuten; alegia, ez zen gai informatiborik. Elkarrizketak eta bai, baina gai informatiborik ez. Debekatuta zegoen informazio lokala, Radio Nacional-ek zeukan eskusiba informazioarako. Eta, hala ere, izan genituen arazo batzuk.

● Arazo haietakoren bat gogoan bai?

Jose Angel Iribarrekin egin genuen elkarrizketa bat zentsuratu, atzera bota ziguten lehenengo egunean, baina esan genuen: "Gaur atzera bota badigute, hurrengo astean berriro aurkeztuko dugu". Eta hurrengo astean ontzat eman ziguten; hori Madrileko zentsura zen. Baina zentsurak gehienetan ez ziren Madrilekoak izaten; Madrilekoak hemen zeuzkaten *monagilloenak* izaten ziren, eta horiek euskaldun-euskaldunak ziren. Nire garaiko jendeak oso ondo ezagutzen zituenak eta normalean oso abertzalezatza zeuzkatenak. Hala ere, esperientzia polita izan genuen. Gu *'los de bergara con b'* ginen, hala esaten ziguten, Bergara 'b'-rekin idazten genuelako.

● Haiek izan al ziren telebistan euskaraz egin ziren lehen saioak?

Maite Barrenetxek, F3n, hamabostean behin bost minutuko saio txiki bat egiten zuen, Iparralderako baino ez; saio hura uste dut 1973an hasi zela. Baina Hegoaldean euskaraz egin ziren lehenengo esperimentuak Telenorteko *Euskalerrria* saioak izan ziren.

● Telenorten aritu ondoren, Euskal Telebistara pasatu zinen.

ETB hasterako Hanburgera bidali nahi ninduten ikastaroetara baina orduko zuzendari nagusiarekin, Josu Zufiaurrekin, ez nintzen konpondu eta ez nintzen joan. Gero, hala ere, ETB hasi eta bi hilabetera lanpostu bat lehiaketara atera zen: asteburuetarako erredaktoreburua eta kiroletako zuzendariaren postua. Niri kostatu egin zitzaidan erabakia hartzea baina azkenean aurkeztu egin nintzen lehiaketara. Ordurako bani-

Afizioak eta "frustrazioak"

Zaletasunak baditu Joxe Mari Iriondok. Berak, "norberaren frustrazioak" direla uste du. Lan asko egin du euskal kulturari eta bere "frustrazio" asko euskal kulturari lotuak daude. Hala dio: "Niri mundu honetan gustatuko zitzaizdan pilotaria izatea, bertsolaria izatea, trikitilaria izatea eta kantaria izatea; eta une honetan gustatuko litzaidake informatikoa izatea". Honatx haren beste esan batzuk:

● **KANTAGINTZA.** "Kantagintza nire benetako kuttuna izan zen. 1964an lehenengo Lurdes Iriondorekin eta gero Julian Lekuonarekin egindako grabazioen ondoren, kantariak biltzeko lehenengo bilera egin genuen Zarautzen, Joxe Antonio Artzek eskatuta. Belaetxen, Azpeitian, ere elkartu ginen. Gero, Bar Iturriotzen Donostian, eta handik sortu zen Ez Dok Amairu".

● **BERTSOLARITZA.** "Ni bertsozalea naiz, oso bertsozalea. Bertsotan orain oso erraz idazten dut. 1954an Gabirian eskolan nenbilela etxera lehenengo gutuna koplatan egina bidali nuen. Kopla horiek, gainera, topatu ditut".

● **TRIKITILARITZA.** "Trikiti lehiaketa aurrenekoz 1970ean antolatu genuen, Donostiko Trinitate Plazan. Sarrera guztiak saldu ziren eta jendea kanpogan gelditu behar izan zen. Arrakasta hura deskubrimendua izan zen jende askorentzat".

● **PILOTA.** "Nik pilotan orain arte jokatu izan dut eta ukolondoagatik utzi nuen. Esan zidaten *codo tenista* nekala, baina nik inoiz ez dut jokatu tennis. Hori bai, azkeneko urteetan palaz egin nuen".

● **AFIZIO EZKUTUA.** "Niretzat benetako afizioa argazkia izan da. Argazki eta diapositiba asko ditut aterata".

tuen 45 urte. Atera egin nuen eta 1983ko apirilaren 12an ETBn lanean hasi nintzen, eta 1985ko abuztua arte asteburuetako erredaktoreburu eta kiroletako eta kulturaleko zuzendari bezala egin nuen lan. Eta 1985ko abuztuan —gauzak orain ikusi eta orduan ikusi oso desberdinak dira— ETBko zuzendari eta programazioburu izendatu ninduten. Gaur egun ETBko zuzendari eta programazioburu pertsona bat izatea ez da posible. Legealdi hori horrela egin nuen eta hurrengo legealdian Miramonera pasatu edo eusko irratietako —Euskadi Irratia, Radio Vitoria eta Radio Euskadi— zuzendari nagusiaren postuetarako proposamena egin zidaten; irratietako zuzendariaren postua aukeratu nuen. Orduan, 1989tik 1996ra, hiru irratietako zuzendari-koordinatzaile nagusia eta Radio Euskadiko zuzendaria izan nintzen. Gaur, zuzendari-koordinatzaile bat beste egitekorik gabe dago eta irratia bakoitzak bere zuzendaria du. Orduan ardurak pilatu egin behar ziren, baina soldata batekin ziren denak.

● ETBn egin duzun azken saioa *Esanak esan* izan da.

Azkeneko urteetan saio bereziekin eta *Esanak esan* saioarekin ari nintzen lanean. *Esanak esan*-ek astean egun bateko lana ematen zidan. Eta saio bereziak Azpeitiko danborrada edo zuzeneko emanaldiak ziren, baita grabazioak ere.

● Orain lana utzi eta zure lanekin jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Lana guztiz ez dut inoiz utziko. Euskadi Irratian kolaborazio bat egiten hasiko naiz. ETBn, berriz, *Esanak esan*-ekin segitu egin nahi dutela esan zidaten eta orain, udazkenean, hitz egitekotan gelditu ginen. Alde batetik, pantaila uzteak ez lidake inolako penarik emango. Beti Jose Luis Lizundiaren espresio bat erabiltzen dut —bera ere nirekin batera jubilatuta da; hura Euskaltzaindian—: "Jubilatua, baina erretiratua ez". Orain Teodoro Hernandezenari buruzko lan batekin ari naiz; urtearen azkeneko entregatu behar dut. Eta gero, bilduma bat egin nahi dut; zati handi bat eginda daukat baina lan zaila da. Basarriren kronika eta argitaratutako bertso denak bildu nahi nituzke. Hor lan handia daukat, egunkari denak ez baitaude digitalizatuta. Bitxia da Basarriren historia. Basarri asko ezagutzen nuen baina ez nuen uste adina ezagutzen.

“ Beti Loiola Irratia noiz itxiko kezka horrekin ibili ginen, bai Onda Median eta baita FMn ere”

“ Irratian 22 urte egin ondoren, telebistako eskaintza oso gustura hartu nuen, nire burua pixka bat oxigenatzeko”

“ Orain Basarriren kronika eta argitaratutako bertso denak bildu nahi nituzke bilduma batean; horretan nabil”

● **Pixka baterako lana badaukazu orduan.**

Bai, baina hori da benetan gustatzen zaidan lana.

● **Euskararenganako eta idazteko duzun zaletasun hori behin etxeko ganbaran topatu zenuen liburu batengatik omen datorkizu.**

Beno, bi liburu daude. Bat, etxean topatu nuen, *Santa Genobebaren bizitza*, Zapiain anaia bertsotan. Handik laster Aratzerrekan eskolan leihoaren azpian armairu bat zen eta han *Nekazaritza* Gipuzkoako Diputazioak egindako liburu batzuk aurkitu nituen. Liburu hori arakutzen hasi eta, batez ere, hango argazkiek harritu ninduten: baserritar bat sardearekin belarra jasotzen azaltzen zen eta gurdi gainean hartzeko zegoenari sarda punta sartzen, eta esaten zuen: “Kontuz! Lanak ondo begiratuta egin behar dira”. Argazki hark ikaragarri liluratu ninduen. Eta gero hortik atzera, Gabirira eskolara joan nintzenez, eskolako liburu-

“ Basarriren bertso sorta liburu, Gabiriko eskolan nentzela, koaderno batean dena eskuz kopiatu nuen”

tegian Basarriren bertso sorta ikusi nuen eta orduko euskara irakasleari, Koldo Sarasolari —guk orduan Jose Angel deitzen genion; asteasuarra, oso euskaldun ona—, liburu irakurtzeko utziko al zidan eskatunio; zortzi egunera itzultzekotan utzi zidan liburu. Itzuli baino lehenago, eta gero bertsoak ikasteko asmoz, koaderno batean eskuz kopiatu nituen den-denak, goitik behera.

● **Kazetaritzak zer gauza on dauzka?**

Oso lanbide polita da eta dituen alderdi onak asko dira, mila dira. Kazetariaren lan orduak 24 ordu dira. Elkarrizketa lehenengo pentsatu egin behar duzu eta dokumentatu. Elkarrizketara esku hutsik joateak ez du balio. Dokumentazio lan guztia askotan iluntzean ohera joan eta lo hartu ezinda zaudenean edo goizean esnatu eta jaikitze-ko ordua etorri baino lehenago egiten da. Kazetaritzak balio, orduan balio du. Kazetaritzak alde onak mila gehiago ditu txarrak

LAU MILA ELKARRIZKETA BAINO GEHIAGO

Haurra zela liluratu zen Joxe Mari Iriondo irratiarekin. Gero, barrua eta kanpoa ezagutu ditu

Umetatik liluratu izan du Joxe Mari Iriondo irratiak. Gero, 22 urte egin zituen Loiola Irratian. Ondoren, euskal irratiaren koordinatzaile nagusia izan zen eta Radio Euskadiko zuzendaria. Irratia barrutik eta kanpotik ondo ezagutzera heldu da. Gaur egun ere telebista ikusi baino, irratia gehiago entzuten du. “Irratia beti gustatu izan zait, orain ere telebista baino askoz gehiago gustatzen zait. Gaur egun telebista ikusten baino irratia entzuten denbora gehiago pasatzen dut”, dio Iriondok.

Hamar urterekin liluratu zen aurreneko kazetari azpeitiarra irratiarekin. Hamahiru hilabete besterik ez zituela ama hil zitzaion Iriondori eta amonaren jaiotetxera, Aretzerrekako Atxumariya baserrira eraman zu-

ten Iriondo haurra. Urtero, Gabon garaian, Joan anaia Joxe Mari jaiotetxera eramatera joan ohi zen Aratzerrekara. “Hamar bat urte edukiko nituen eta jaiotetxean irrati bat erosi zuten, Telefonken handi bat, oso ederra. Irratia entzuten egon ginen eta ni harrituta nengoen, nola han, hain toki txikian, bi lagun nola sartzen ziren. Irratian hitz egiten Maria Dolores Agirre eta Jose Artetxe ari ziren”, kontatzen du Iriondok.

Irratia entzun ondoren ez zuen gau makala pasatu Iriondok. “Gau osoan esna egon nintzen. Eta hurrengo goizean inor baino lehenago jaiki nintzen pixa egitera, eta sukaldera joan eta irrati aparatuari atzetik begiratu eta bere inguruan bueltaka ibili nintzen, ea bi lagun han sartzea nola zen posible pentsatuz”.

ZORIONAK BERTSOTAN. Segura Irratia hasi zenean ere Iriondok familiako bati zorionak bertsotan eman zizkion irrati. “Hiru bertso kantatuta eman nizkion zorionak senide bati. Orain bertso haiek ez ditut topatzen; gutxi gorabehera badakit nola ziren, baina ez naiz ausartzen idazten, ez zirelako benetakoak izango”.



Iriondo elkarrizketa bat egiten./ LOIOLA HERRI I.

Gabiriko eskolan ibili ondoren soldadutzara egitera Afrikara joan zen; Sidi Ifnira, hain zuzen ere. Irratiaren barrenak orduantxe ikusi zituen aurreneko aldiz. “Sidi Ifni Irratian lagun batek egiten zuen lan eta harekin joan nintzen. Eta irrati hark oinarri-oinarrizko elementuak zeuzkan”.

LOIOLA IRRATIA. Iriondok, soldadutzan zegoela, Loiolan irrati bat sortzera zihozazela jakin zuen. “Soldadu nengoela abisatu zidaten Loiolan irratia ipintzekotan zirela eta inauguraziora etorri nahi izan nuen. Irratia aurretik hasia zen —otsailaren 11n— baina uztailaren 31n zen inaugurazioko egun handia, eta ordurako etortzeko asmoa nuen. Etortzeko prest nengoela, Aviacon sartuta ginen, baina handik aterarazi gintuzten. Garai hartan

baino. Ni lehengo barrika zaharrekoa naiz. Inoiz ez zait gustatu lan-itunean zazpi ordu eta zazpi minutu egunean agertzea; horrek ez dit balio izan. Etxean ere mila aldiz segitu izan dut lanean. Sekula ez dut elkarrizketa bat buruz egin. Ez da pentsatu behar "gaur edo bihar gaia menderatzen dudanean errazago egingo dut"; kazetaritzan bihar gutxiago menderatuko duzu gaur baino, gaur ausartago izango zara hemendik hamar urtera baino.

● **42 urtean kazetari eta euskaraz lan egin duen askorik ez da izango?**

Kazetari lan eta euskaraz bakarrik egin duenik asko ez da izango, ez. Norbaitek izan behar du lehenengo eta niri tokatu zitzaidan. Nik obsesioa neukan; alegia, euskaraz bizitzeko obsesioa neukan eta gero idaztea asko gustatu izan zait. Tokatu.

● **Lehen esan duzu kamera aurreko lana uzteak penarik ez dizula emango.**

Kamera atzeko lana askoz politagoa da,

“ Nik euskaraz egin dut lan; obsesioa neukan, alegia, euskaraz bizitzeko obsesioa neukan”

baina askoz politagoa da jarraipena daukagunean, aurkezle batekin lan egin behar duzunean, saioan. Izan ere, aurkezlea era horretan ezagutu egiten duzu eta harekin bat egiten duzu, baina programa bat egiteko denean bakarrik, ez dizu aurkezlea ezagutzeko astirik ematen. Eta kameran ez naiz eroso sentitzen, egia da.

● **Orain, telebistan, audientziak direla eta ez direla egiten dira saioak. Nola ikusten duzu hori?**

Hemengo telebistetan ere audientziei asko begiratzen zaie. Telebistarena borroka ikaragarria da.

● **Joseba semeak, zure lanbide bera hartu du. Gomendiorik ematen al diozu?**

Guk gure artean lan kontuez ez dugu asko hitz egiten, aitatu oso gutxitan aitatzen dugu. Ez hark niri eta ez nik hari. Haren lana ikusi bai, ikusten dut. Orain liburu bat idatzi du eta zuzenketak nik egin dizkiot baina edukia ukitu gabe.



Irrati kontakizun bateko saioa; Iriondo eskuinetik hasita lehena da. / LOIOLA HERRI IRRATIA



Pilota emanaldi bat egiten irratirako. / L.I.

ere, oraintxe bezalaxe, beti komunismoaren susmoa baitzen. Konpainiara idatzi bat etorri zen esanaz, 'se han detectado celulas comunistas en la población de Sidi Ifni'. Beraz, han gelditu behar izan nuen. Baina, abuztuaren 26an etorri nintzen etxera eta 28an Loiola Irratian hasi nintzen".

Loiola Irratian kontabilitatea eramaten hasi zen lanean Iriondo, baina gero pixkanaka kazetari lanak egitera pasatu zen. Gidoigintza izan zen aurreneko pausoa. "Imanol Eliasek *Andre-gizonak* izeneko kontakizun saiorako gidoiak idazten zituen eta hark utzi zuen batean niri eskatu zidaten gidoia idazteko. Hori izan zen nire lehenengo gidoia. Gero herrietako informazioari buruz idazten hasi nintzen; erre-dakzio lana egiten nuen, alegia". Eta

kazetari lanean 22 urte egin arte hantxe, Loiola Irratian.

GORDE GABEKO BI. Irratian egindako lau mila elkarrizketa ditu kontaktuta Iriondok. Ia denak grabatuta ditu, baina gogoan baditu bi elkarrizketa grabatu gabe dituenak. Pena hori badu.

"Behin, Arantzazun, Jorge Oteizari egin nion elkarrizketa ezabatu egin zuten. Hari ezer esan gabe grabatu nuen. Han '*mecauguen la virgen, mecauguen dios*' eta horrelakoak esaten zituen. Behin Loiolan eman zen grabazioa, baina gero ezabatu egin zuten", dio azpeitiarrak.

Beste bat ere bada grabatu gabea: Atxukarrena. "Atxukarro anaietako batek — bi anaia ziren— Uzkudun borrokara desafiatu eta honek desafioa onartu egin zuen.

Zelatungo gainean egin zuten borroka, harriz eskorta bat egin eta handik kanpo irteten zenak galduko zuen; han barruan, bata bestea hil arte nahi zuena. Azkenean, Uzkudunek galdu zuen, estropozu egin eta eskortatik atera baitzen. Grabazioan gertakizun hura jaso zen, Atxukarrok kontaktuta, baina ez dago jasota".

Elkarrizketak gordetzea, "hizkuntzaren lekukotasuna jasotzea" dela dio Iriondok. "Adineko jendearen elkarrizketak beti gorde egiten genituen, jende gaztearenak ez. Jean Haritzelharrek, behin, *Esanak esan* saiora etorri eta hala esan zidan: "Joxe Mari, nekrologika usaina ez al dauka elkarrizketa honek?". ●

datue

47.000

sarrera izan ditu aurten igeri-leku irekiak ekainaren 15etik irailaren 15a artean. laz baino 25.500 erabiltzaile gehiago izan dira aurtengo udan kanpoko igerilekuan.

dato historikue

63

urte dira plazan, kiosko azpian, komunak egin zirela. 1940an egin ziren.

esaldiye

“Kultura arriskutsua ez bada, ez da kultura”

Lluís Llach
(Kantautorea)

esaerie

“Udazkenean uso pasea izateko, aurrena txoriak pasa behar”

liburutik ttak

“Euskara hutsean argitaratu zen lehendabiziko egunkariak *Escualdun Gazeta* izena jaso zuen, eta Los Angelesen (Ameriketako Estatu Batuak) editatu zen, 1885ean. Martin Biscailuz izan zen egunkari-kozendaria. Bere aurreneko zenbakian, egunkariak munduko eta bertako albistean eman zituen, kexu zen gero eta dibortzio gehiago zeudelako, eta harro zegoen euskal herritarrek lortutako arrakastengatik. Egunkaria desagertu egin zen hirugarren zenbakirako”.

‘Mil noticias insólitas del país de los vascos’. Iñaki Egaña. Txalaparta argitaletxea. 2001. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



ASTAKERIAK ETA ZIGORRAK

Orain ez dugu astakeri gutxi egiten, baina lehen ere beste hainbeste. Azpeitian eskribau urteak egin zituen Uzkudun jaunak lekukoengandik jasotako batzuk jaso ditugu, adibide bezala.

Juanes Iriarte *Musan* eta Martin Apeztexea motxaileen aurkako epaiketan (1706) esaten da arropa zuria lapurtu zuela lehenak Zestoa-ko ospitaletik. Biek, berriz, *Soka* motxaileari bi dukat lapurtu zizkioten Aizarnan; Musanek zaldia zaurituz, Zarautzen erositako otarrak egiteko igitai antzekoekin. Aizarnan Juanes Gurrezuriri eginiko lapurreta ere gainean zuten.

Musan berehala kartzelaratu zuten Azpeitian. Gero emakume batek adierazi zuen, hurrengo egunean kartzelatik atera zutela herritik kanporatzekotan, baina denbora gutxira ikusi zuela Musan herriko plazan bertako zirgiloan lepo-

tik lotuta. Herritik kanporatu eta berriro itzuli zelako? Dena den, han jasoko zituen, seguru-eruenik, gerturatutako mehatxuak eta irainak... Nola amaitu zen? Guk ere hori jakin nahi, baina ezin. Ez ote zioten belarriren bat moztuko, pentsatzen dugu; aurreko mendeetan ohikoa zen bezala. Bizi osorako seinalea ager zezan, lapur edo gaizkilea zela adieraziz.

Beste era bateko gertakaria dugu beste hau, joera ausartekoa dudarik gabe. Hitzez eginiko astakeria, isilik gorde beharrekoa seguruenik, nahiz eta antzeko zerbait gertatu lehen bezala gaur egun ere.

Antzia etxea zuen alokatuta Martin Goitia apaizak. Agustin eta Joan Arzuaga anaiek egin zituzten urteak han beren sendiekin. Baina etxea utzi beharra izan zuten eta apaizak auzia jarri zien etxean egin zituzten kalteak ikusita.

garai bateko Azpeitiye ...Pedro Mendozak kontatua

Zineak betetzen zirenekoak

Pedro Mendozak garai batean Azpeitian ziren bi zine aretoak ditu gogoan; bera Parrokialera joaten zen, merkeagoa zelako

Rinitze Oruesgasti

Joan den hilean, irailean, hiru egunez, kanpoko zine emanaldiez gozatzeko aukera izan zen herrian. Ekainean Soreasu zine aretoa itxi eta iraila arte Azpeitian ez da izan zine-filmak ikusteko aukerarik, herriko zine areto bakarra itxita egon baita. Baina irailaren bukeran Soreasuk berriro ekin zion zine emanaldiei. Bien bitartean, Azpeitiko zinezaleek herritik kanpora jotzen dute filmaren bat ikusi nahi duten bakoitzean.

Herrian garai batean bi zine areto zeuden, baina gero Zelaitxo itxi eta Soreasu bakarrik gelditu zen. Baina gure aiton-amonek ere zazpigarren arteaz, zineaz, gozatzeko aukerarik izan zuten gaztaroan. Horrela esan du behintzat Pedro Mendozak. “Astean behin joaten ginen gu zinera, igandetean. Erreal bikoa ordaintzen genuen zine sarreran. Garai hartan bi zine areto ziren herrian: parrokiala zen bata

eta Luminor bestea (Zelaitxo baino lehenago zegoena). Gu parrokialera (Soreasu ondoko lokala) joaten ginen, batez ere”.

Gaur egun herriko zine aretoa beteta ikustea ez da erraza, baina Mendozak zine aretoak gainezka izaten zireneko garaiak ditu gogoan. “Gogoan dut aretoa bete-bete eginda egoten zela eta behin baino gehiagotan pantaila atzean eserita filmeren bat edo beste alderantziz ikusi nituela”, dio.

Orain jendea maiz kexatu izan da zineko sarrerak garestiak izaten direla eta; Pedrok ere badu zeresanik bere gaztaroan zinea ordaintzen zutenaz. “Gu parrokialera joan ohi ginen, bestea baino merkeagoa zelako. Gu umeak ginen eta guretzat Luminor garestia zen; egun berezietan baino ez ginen joaten hara. Batez ere, jende heldua joan ohi zen Luminor zine aretora”.

Zineak eta telebistak gaur egun garrantzia handia dutela dio Pedro Mendozak. “Gaur



Azpeitiko antzinako kartzela eta epaitegia. / IMANOL ELIASÉN ARTXIBATEGIA

● **EZIN JAKIN.** Arzuagak Martin Goitia apaizarekin izandako auzian (1717) esandakoak ondorioak izango zituen, baina ezin jakin

Anaia batek haserre adierazi zuen, eskribauaren aurrean (1717), etxetiar bizi izan zen denboran, bere odola ez ezik, bere seme guztiena zurupatu zuela etxearen jabeak. Esandakoak ondorioak ekarriko zituen, baina zenbaterainokokak izan ziren jakin gabe gelditu gara...

abizena

OLAIZOLA

● **Banaketa semantikoa.**

● Olaiz-: Ola, burdinola edo oloa.

● -ola: oloa.

● **Esanahia.** Bi esanahi ditu abizen honek: ola (burdinola) lekua edo olo soroa.

● **Armarria.**

Urre kolorekoa da eta arte berde bat agertzen da armariaren erdi-erdian. Aurrealdean, berriz, sablezko basurde bat oinez pasatzen ageri da zuhaitzaren enborraren aurretik.



● **Abizenaren kokapena.**

- Oiartzun.
- Gipuzkoa.
- Bizkaia.
- Argentina.

● **Abizenaren hedapena.**

- Azpeitia (1669).
- Oiartzun (1695).
- Hondarribia (1654).
- Zestoa (1824).
- Bilbo (1824).
- Santiago (Galizia) (1705).
- Bizkaia.
- Donostia (1713).

'www.paisvasco.com' webgutetik hartua dago.



Zelaitxo zine aretoa zeneko lekua. / UZTARRIA

“Zine aretoa beteta eta pantaila atzean eserita ikusi izan ditut filmak alderantziz”



Pedro Mendoza

egun etxe bakoitzean telebista bat baino gehiago izan ohi da; gurean, esaterako, bi ditugu”.

TERTULIARAKO TARTEAK. Mendozarenean lehen, berriketarako eta tertuliarako denbora gehiago hartzen zen gaur egun baino; orain tarte hori telebistak hartu du. “Gazteak ginenean bazkalondan irratia piztuta izaten zen, baina tertulia eta hitz egiteko denbora izaten genuen. Gaurko gazteak, ordea, bazkaldu bezain laster telebista aurrean jartzen dira. Agian horregatik diot hainbesteko amorrua telebistari, ez baitute ezer dezentea botatzen nire gusturako. Harremana, komunikazioa, hein handi batean telebistagatik galdu egin dela uste dut. Garai batean, askoz gehiago hitz egiten zen mahai inguruan”, dio Mendozak.

komunikabidiek

USABIAGAREN ERANTZUNA

Irailean, *Gara*-ren *Zazpika* aldizkarian elkarrizketa egin zioten Xabier Usabiaga, *Berria*-ko, Euskadi Irratiko eta ETB1eko kazetariari, eta hauxe esan zioten:

— “*Marca* da Espainian gehien saltzen den egunkaria. Hori bai marka!”.

Usabiagaren erantzuna:

— “Euskal Herrian El Comercio Español taldekoak [DV eta]... Hori ez da txikiagoa”.

gertuko pasadizue

**PERURENAREN
LEHEN ALTXALDIA**

● **IÑAKI PERURENA:** "Azpeitiko zezen plaza-ko nere lehen esperientzia nekez ahaztu dezaket, ikaragarria izan zen. Etxean ezer esan gabe joan nintzen Endañeta eta Mendizabalek jokatu zutenean, osabarekin (...). Ordurarte ez nuen ikusi sekula harrijasotzailerik, eta eskema guztiak puskatu zizkidan (...). 16 urte izango nituen nik (...). Harrijasotzaileek amaitzean, harrien ingurura hurbildu ginen (...). Halatan, soinean neraman garbina kendu ere egin gabe, hamabost arruakoari heldu nion, eta, zirt-zart!, belauetaraino atera nuen".

'Azpeitiko Zezen Plaza 1903-2003'-tik hartua. Azpeitiko Udalak argitaratua. 2003. urtea.



Endañeta harria jasotzen. / J.L.I.

komunikabidiek

**'ARGIA'-REN
HARPIDEDUN
KANPAINA**

Uztarriaren ale honekin batera, *Argia* astekariaren hiru zenbaki doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu. *Argia* euskarazko aldizkaria uda aurretik eraberritu zen. Itxura eta mamiz ederki berritu zen eta orain harpidedun kanpainari ekin dio. Beraz, postala bete eta *Argia*-ra bidaliz gero, aldizkariaren hiru zenbaki doan jasotzeko aukera ematen du *Argia*-k; era horretara, astekari berriua ezagutzeko aukera emanez.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ZOTINA

● **JAN.**
Asko jan eta edan ondoren sor daiteke

Zotina, diafragmaren bat-bateko uzkurduragatik eta glotisen dardaragatik gertatzen da. Aldi bereko bi mugimendu horiek, gogaikarria eta denok ezagutzen dugun bat-bateko zarata sortzen dute.

Askotan garrantzirik gabeko gertakizuna da eta, batez ere, asko jan eta edan ondoren, sabelaren eta heste lodiaren zabalkuntzagatik sortua. Bestetan, gasdun ura edandakoan edo heste-zizareak ditugulako azaltzen da; zotina mota hori da gehienetan izaten duguna. Tratamendu ugari erabili dira eta bat bera ere ez da segurua: arnasik hartu gabe pixkanaka ura edatea, ozpinez bustitako azukre koskorra hartzea, sustu

bat ematea... Dena dela, lasaigarri leun bat hartzeak beti ere on egingo digu.

Egia esateko, gorputzean gaixotasun organikorik ez dagoenean, minutu gutxitan eta bere kasa aldegiten du. Hala ere, medikuntzarentzat garrantzia izan dezake. Diafragmako gaixotasunen sintoma izaten da sarritan. Zotina, arazo torazikoen ondorio sekundarioa izan daiteke; adibidez, biriketako tuberkulosia, pleuresia edo kantzerra; baita sabeleko gaitzagatik ere: kiste hitaditokoa (zakurrena), gibelekkoa, peritonitisa eta abar. Argi dagoenez, kasuotan, zotina sorrarazten duen gaitzaren aurka jokatzea beharrezkoa da.

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASE BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk.

Tel.: 943 81 65 03



**ARTE ETA DISEINU
IKASTEGIA**

- > Talla19:30/21:00
- > Pintura (helduak)..... 17:30/19:00
- > Marrazketa eta eskulanak (haurrak)17:30/19:00

Astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
943 - 81 28 08



- AHOLKULARITZA FISKALA,
- LABORALA, KONTABLEA
- ASEGUROAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ZARAUTZEN BIGARREN

XIX. Basarri Saria bertso paper lehiaketa garrantzitsuan bigarren saria irabazi zuen Jexux Lopetegik. Irailaren 5ean jaso zuen saria, Zarautzen bertan



Ilusioz jasotako saria

● Jexux Lopetegik Burgoseko (Espainia) herri txiki batean oporretan zela jakin zuen XIX. Basarri lehiaketako bigarren saria irabazi zuela. Ilusioa egin zion saridun izan zela jakiteak. "Ilusioa beti egiten du eta, gainera, Basarri bertso idatzien txapelketak ospe handienetakoa du. Nire sortako gaia, laburbilduz, umearen paperetik helduentzat idatziriko tragedia da". Lopetegik ez du bertostan eskuratu duen lehen saria; aurretik, Erniarraitzek antolatutako lehiaketan ere saria jaso baitzuen.

Gaia:

AMATXO BAINA...
NON DAGO
AITATXO?

● DOINUA: Gogoan daukat ez da aspaldi ● NEURRIA: hamarreko handia

Amatxo baina... Non dago aitatxo? Asko da falta detela. Berak, zeruan! erantzuten dit teknikari den bezela. Bertako izar distiratsu bat ilunik gelditu zela. Besteek ezin konpondu eta zeu joan omen zinela. Nik banekien denetarako aita onena nuela!

Azken boladan iruditzen zait jendea niri begira, gaiztakeririk ez det egin ta zergatikan ari dira? Halere ezer ez da nirea ondo nago eta, tira! Baina amatxo dabil arraro ez da irtetzen herrira. Nirekin ez du azaltzen baina zeharo triste bizi da.

Lotartzeko ordu honetan badakizu honezkerore zure argazki bat badudala almodapean bero. Kolore pixkat galtzen ari da muxuak emanda edo. Aitatxo asko maitatzen zaitut! esaten diot gauero eta amatxok "ta nik ere bai" xuxurlatzen dizu gero.

Gauetz isiltsu etortzen zinen azken muxu bat emanez

nik, lo itxura egiten nuen maitasuna dasta nahiez. Oraindik ere zain egoten naiz bazatozenaren fedez beraz hartuko banindu loak eta zu itzuli gauetz besarkatzea behar det eta esna nazazu mesedez.

Kaixo aitatxo! sei urterekin idazten hasi geranez, zueri gutun bat egiteko gaur andereiñoak afanez. Nik esan arren nondik zenbilen ezin nuela aidanez berak goxoki besarkatu nau pare bat muxu emanez zerutik ere irakurriko dizkidazula esanez.

Mugaz gain maite ginduzula ta ez itzultzeko, zer dezu? Agian beti oihu nintzanez, noiznahi haserre ta kexu aguantatu ezinda edo aldendu ote zinen zu? Inoiz malkoak azaltzen zaizkit ustezko kulparen izu birek papera busti didate barkatuko al didazu?

la gauero birsortzen zaidan amets bat badet gordeta. Nola noizpaiten jantziko dedan REALeko kamiseta, nire gol denak zuri eskeintzen seinaleztatzen gradeta. Baina amari ez diot egin amets hauen kontaketa gero ohera sartutakoan negar egiten du eta.

Aurkitutako iltze guztiak jasotzen ditut niretzat. Herdoil pixka bat badute baina, igoal behar ditu aita? Olentzerori idatzi ere opariatikan at,

jostailu eta jostalaria nire aita ditut biak. Eraman hauek eta lagundu beharra, berea daukat.

Atzo gauean marrazki batzuk ari nintzela apaintzen ETB bat-en azaldu zinen zeure argazki ta izen. Amak presaka itzali zuen ta nahiz ez aditu zuzen orain lo asko gertatutako bonbaren baten zerbait zen. Oso guapo azaldu zinen ta poz poz jarri nintzen.

Ama fabrika baten hasi da, beti langile ta polit, gero gauean ikastolako lanarekin laguntzen dit. Oheratzean oso ipuin politak kontatzen dizkit. Magal horretan Banbi gaixoa sarri burura datorkit eta umezurtz utzi zutenek ez ote zuten bihotzik?

Osabagatik dakizkit zutaz istoririkan gehienak. Sorbaldan nola hartzen ninduzun paseatzera irtenak. Egurrez egin zenizkidala jostailurik politenak. Zein kirolari dohai dituzun zein portaera gardenak eta gero nik hartzatxoari kontatzen dizkiot denak.

Gaurkoz, nahikoa! esanez daude ikastolako bi txirrin. Orain aitona datorkit bila herrenka, nahi eta ezin, beste haurtxoen gurasoekin hitzegin eta hitzegin. Agur aitatxo! Gauean berriz elkartuko naiz zurekin, agian triste ipini zaitut baina ez negarrik egin. ●

Nuarbeko sokatira taldeak uko egin dio Europako Txapelketan nazioka aritzeari: Espainiako ereserkia ez entzuteagatik, banderagatik... Ideiekiko koherentziagatik, erosotasuna albo batera utzita



NUARBE=ESPAINIA?

“EZ”

Enekoitz Esnaola

Nuarbe. Gipuzkoa erdialdean dagoen herri txikia —edo, administratiboki, Azpeitia eta Beizama herrien auzunea—. Baserritarra. Euskalduna. Euskal Herrian praktikatzen den kirol batean talde bikaina duena: sokatirakoa. Beraz, imajinatzen Nuarbeko tiralariak nazioarteko txapelketa batean, podiumean, beraien omenez Espainiako bandera altxatzen ikusten, arropan ‘España’ idatzita eta kolore horiekin, eta Espainiako ereserkia entzuten? Nuarbetarrek beraiek garbi dute: “Ez. Eta horregatik ez gara joan irailan Holandara, Europako lur gaineko Txapelketara, nazioka lehiatzeko baldintza horiek bete behar zirelako: ereserkia entzun, bandera...”, esan dio Luis Gurrutxaga, Nuarbeko presidentea Uztarriari. Nuarbek iaz bete zuen 25. urteurrenak sortutako nekeak —ekitaldi asko, bidaiak...— eta aurten taldean iaz baino laupabost lagun gutxiago egoteak ere izan dute zeriku-

sia Holandara ez joateko erabakian. Baldintzena izan da, ordea, pisuzko arrazoia.

Azken urteotako kontua da baldintzena. Espainiak muturra sartu duelako, politizatzen ari delako Espainian praktikatzen ez duten kirol hau. Batez ere orain dela bi urte dago gogor Nazioarteko Sokatira Federazioa. “Orain bi urte Japonian jokaturako Munduko Jokoetan Sakanako taldea podiumetik jaitsi egin zen Espainiako ereserkia jotzen hasi zenean. Joko horietan ez da sokatira bakarrik jokatzeko; hor, Olinpiar Jokoetan ez dauden kirolak jokatzeko dira, eta, beraz, Espainiako ordezkari asko zegoen Japonian. Eta Sakanarena ikusi zutenen... Min eman zien horrek, eta harrezkero baldintzak ezarri zituzten”.

NUARBE ETA NAZIOKAKOIA. Lehengo urtean Hego Afrikan Munduko lur gaineko Txapelketa jokatu zen; orduko, talde bezala aritzeko nazio bezala ere aritu beharra zegoela exijitzen zen, eta nazioka aritzean, hasieran aipaturako baldintzekin.

Euskal taldeak, ordea, nazioka nahita oso maila kaskarrean aritu ziren eta ez ziren podiumera igo; beraz, batere parafernaliarik jasan beharrik ez. Aurten ere antzekoa egin dute Holandan. “Nuarbek, ordea, naziokako lehiaketari taldekakoari baino garrantzi handiagoa eman izan dio beti, eta, orduan, gu nazioka lehiatuko bagina eta dominaren bat irabazi, ba Espainiako bandera altxatuko lukete eta abar. Horrek ez gaude ados, eta horregatik ez gara joan aurten”.

Orain dela sei urte Munduko Jokoetan arrisku horretan izan ziren Nuarbekoak, urrea irabazi zutenen, “baina protokoloari uko egin genion, ordu arte ereserkia-eta ez entzuteko gurekin nolabaiteko hitzarmena zegoela esan genielako antolatzaileei”.

Etorkizuna ez da ona. Nuarbek bere 26 urteetan egundoko palmaresa bildu du, Euskal Herrian ez ezik, munduan ere bai, eta oraingo baldintza hauekin nazioartean domina gehiago ez irabazteko aukera dute. Koherentzian ere txapeldun dira, ordea. ●

eTxe
Be
RRiA
Brikolajea & Etxea



BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1 20730 Azpeitia Gipuzkoa
Tel. 943 15 71 15

gotain



gotain
LURRINDEGIA

Erdikalea 3. 20730 Azpeitia Tel. 943 814 358



EDERTi

APAINKETA - DECORACION

Enparan 10,

Tfona eta faxa: 943.81.16.7

alde zaharra

udazken honetan ere erabili zure bezero txartela

%10eko deskontua

ATERA ETEKINA ZURE EROSKETEI!

oraindik ez baduzu, eskatu ezazu zure txartela

agirre oparidenda - erdikale, 1 ● aintzin - santiago, 8 ● disdira - elizkale, 1
 egaña - santiago, 16 ● jone eta maikar - enparan ● jostaldi - erdikale, 15
 kimetz - santiago, 6 ● martina isasti - erdikale, 10 ● oinkari - erdikalea, 5
 romaes - elizkale, 11

Azpeitiko
alde-zaharreko
Merkaterien
Elkartea

* Agirre Oparidenda
 * Aintzin
 * Disdira
 * Egaña
 * Jone eta Maikar
 * Jostaldi
 * Kimetz
 * Martina Isasti
 * Oinkari
 * Romaes

Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkarte ● eliz kalea ● 943-151786

Txartel honen jabeak, derida haucaur 79ruko guesonitua jasozuzko esatitueca uti.
 Txartela inbeka bakarrak erabil dezake

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 30 40
Habea	---
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	15 03 58
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gaez

URRIAK 4-5-20-21

Azpiazu. (Azkoitia) 85 29 89

URRIAK 6-11-12-15-30

Beristain. 81 19 49

URRIAK 7-17-31

Etxebeste. 81 59 74

URRIAK 8-16-27

Garcia. 81 12 74

URRIAK 9-14-28

Zulaika. 15 03 34

URRIAK 10-13-18-19-29

Aranburu. 81 13 50

URRIAK 22-23-24

Jaen. (Azkoitia) 85 06 60

gune publikuek irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-ELGOIBAR-EIBAR

Astegunak: 6:50, 13:50, 15:50, 19:50, 21:50

Larunbatak: 8:50, 15:50, 19:50, 21:50, 0:30, 2:30, 4:30

Igandeak eta jaiegunak: 8:50, 19:50, 21:50

Enpresa: Eusko Tren

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Bizkaibus (Eibar-Bilbo)	902 22 22 65
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

EIBAR-ELGOIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 8:00, 15:10, 17:10, 21:10

Larunbatak: 10:10, 17:10, 21:10 1:30, 3:30, 5:30

Igandeak eta jaiegunak: 10:10, 21:10

Enpresa: Eusko Tren

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren




argazkiyek: Uztarria

Autoak protagonista ez bi egunez

● **AUTOAK ETA AZPEITIA.** Azpeitian parke mugikorra 1.185 automobiletan gehitu da bost urtean (biztanleak 134 gehiago dira herrian): 1998. urtean 6.576 auto zeuden herrian (13.606 biztanle) eta 2002an 7.761 (13.740 biztanle).

● **AUTORIK GABEKO BI EGUN.** Aurten aurrenekoz Autorik Gabeko Eguna ospatu da herrian. Urbanoak, industrialdeetara autobusak, bidegorria... Kontzientziario egunak izan ziren. Baina kostatuko da kontzientziatzea.





1. PLAZA PARKE.

Irailaren 21ean, Autorik Gabeko Egunaren bezperan parke bihurtu zen plaza.

2. BIZIKLETAN.

Helduek baino gehiago haurrek eta gaztetxoek hartu zuten parte Urrestillara, irailaren 21ean egin zen bizikleta martxan.

3. URRAKIKOA...

Herri gunean Autorik Gabeko Eguna ospatzen zen bitartean, Urrakirako Igoeran parte hartu zuten autoak. Bada kasualitatea...

4. TAILERRAK.


Haur eta gaztetxoentzako zuhiatzekin apaindutako tailerrak izan ziren plazan.

5. OZTOPOAK.

Oztopo zuhaitzak izan zitezkeen, eta, ez ohikoa den bezala, autoak.

6. LEKUA LIBRE.

Ez bizikletentzako aparkaleku asko dagoelako, baina leku nahikoa.





7. BI BAKARRIK.

Autobusak hara-hona ibili ziren Autorik Gabeko Egunean. Baina bidaiari gutxi.

8. LOTSAGABEA.

Espaloian edota oinezkoentzako oztopo ziren autoei hurrek "lotsagabe bat zara" zioen txartela jarri zieten.

9. BETI BEZALA.

Autoak errepideetan beti bezala ibili ziren.

10. BIDEGORRIA.

Hartzubia Hiribideko norabide bat bidegorri jarri zen.



GARRAIO PUBLIKOA

GARRAIOA.

Mando
merkea,
hiretzat duk
nekea

Udazken on, adiskideok! Hemen bagara, bizi garen seinale. Batere gogorik gabe herrira itzuli, egunerokora egokitu, hozkailua bete... Ez da lan makala, baina, bizilegea.

Iragan urtean, guztion jakinaren gainean utzi nuen moduan, bizikleta lapurtu zidaten ezusteko desatseginarekin egin nuen topo. Aurten, ezustekoa are handiagoa izan da, Madriletik Bilbora iritsi, eta, Azpeitirako bidea hartzean, autobusa falta zela ikusi nuenean.

Egun hauetan, aho gehienetan dabilen kontua: Azpeitian ospatu den garraiorik gabeko eguna. Egia da, nonbaitetik hasi behar dela, eta hastea beti dagoela ondo.

Errealitatea, ordea, haratago doa. Urola trenan ere, ez zegoen egoerarik hoberenean, eta zer egin zuten konpontzeko? Kendu. Aspaldi, herri barruko urbanoa, ez zen luxuzko zerbitzua, baina, orduan eta orain, askori primeran etorriko zitzaigun. Eta, zer egin zuten? Kendu. Orain, Pesaren Bilborako zerbitzua, errentagarria ez, eta, kendu egin digute. Udaleko arduradunek esango dute, hori ez dela beraien kontua, eta nik gaineratuko diet, botoa eman diegunean, batez ere, herriaren eta herritarren mesederako lan egiteko dela. Ez alferrik, izen propioak dituzte gure alkate eta zinegotziek, eta hauek, partidu baten sigletatik haratago doaz, herritarren botoa jasotzeko orduan.

Hasi dugu Bilbotik Azpeitirako bidea. Banekien, betiko moduan ezingo genuela egin, Pesa kendu zigutela banekielako. Telefonoz dei batzuk egin, eta ondo informatua nengoela uste izan nuenean, hasi dugu bidaia alabak eta biok. Bi maleta erraldoi, bi motxila eta euri eta haize bortitzaren konpainian. Azken hauek, Euskal Herriko edertasunaren seinale! Hori gabe ezin ibili eta... Iritsi gara Eibarrera. Itxoin diogu Eusko Treneko autobusari. Bitartean, segapotoa astindu beste pare bat dei egiteko Eusko Trenera, ordutegia eta geltokia zehazteko. Hor non konturatzen garen ez geundela beharrezko geltokian... Aldaketarekin, hobekuntzak izango omen genituen. Zenbat galdera egin ote nituen aldaketa hau eman aurretik... Nire kezkek baieztatu baino ez ziren egin. Geltokiz aldatu behar genuen, eta hurrengo autobusari, 40 minutuz itxoin. Hori, lehenengoan ondo asmatuta. Guk, hurrengoan bi ordura zela eta, bi orduz itxoin behar. Kontua da, gure gaizki ulertuak medio, Madrilera joateko adinako orduak behar izan genituela etxera bueltatzeko. Amorrut beteta eta haserre, oso haserre.

Eibarren topo egin genuen bilbotar emakumeari galdetu behar! Hura ez zegoen haserre bakarrik, hura negarrez ari zen. Goizeko hamaiketatik Eibarren, Azpeitira nola eta noiz iritsiko. Galduta sentitzen zen, hirurogeita hamar urte inguruko amona, bere adina galdetu, eta gogoratzen ez zena. Bakarrik, Eibarren, Azpeitira etorri beharrean, berriro Bilborako autobusa hartzera zihoanean, topo egin genuena. Ahal zen neurrian, emakumea lasaitu, eta han joan ginen lagun berria, alaba eta biok kafe bat hartzera. Haserre nengoen. Jada, ez niregatik, emakumearengatik baizik. Beldurrak jota zegoen. Berak zioen moduan, bere adinarekin, irakurtzen jakin gabe, galduta, erabat ezezaguna zitzaion herri batean. Elkarrekin, iritsi ginen herrira, nekatuak, oso nekatuak. Bere autobuseko azken bidaia izango zela zioen. Azpeitiko senideek eramango zutela Bilbora autoz esan zidan, hurrengo egunean telefonoz deitu nionean.

Erantzukizunak eskatu behar zaizkionari eskatuko dizkiot, egin beharreko erreklamazioak egingo ditut, baina ezin dut ahaztu Azpeitian bizi naizela, ustezko XXI. mendeko Azpeitia modernoan. Non, autorik gabeko eta garraio publikoen aldeko festa giroko kanpaina antolatu duten. Esango dizuet nik, egun gutxi barru, berriz ere abentura berean sartzen naizenean, festarako zenbat gogo izango dudun.

Eta kontua da, nirea ez dela autoa ibiltzearen aldeko kanpaina, kalitateko garraio publiko hedatu baten aldekoa baizik.



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

URRIAK 4 (larunbata)

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko Trena. Burnibidearen Euskal Museoa. 12:30-ean eta 18:00etan.

• SASKIBALOA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Gasnalsa Alava.net. 18:30-ean. Kiroldegan.

URRIAK 5 (igandea)

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko Trena. Burnibidearen Euskal Museoa. 12:30-ean.

URRIAK 7 (asteartea)

• IPUIN KONTAKETA.

Ipuin kontaketa. Pello Añorga ipuin kontalaria. Haur hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailakoentzat. 18:00-etan. Azpeitiko Udal Liburutegian, Enparan dorretxean.

URRIAK 10 (ostirala)

• TAI CHI CHUAN.

Tai Chi Chuan ikastaroa. Kutxak antolatuta. 29 urtetik beharoko gazteei dago zuzendua. Abenduaren 19a arte izango da ikastaroa, ostiralean. Sindikatu Zaharrean. In-

urriak 6 (astelehena) • 16:00etatik 20:00etara • Antxietan



GIPUZKOAKO HERRIAK. Gipuzkoako Udalerriak izenburupean Kutxaren Fototekako argazkien erakusketa irekiko da. Urriaren 24a arte irekita izango da erakusketa. Antxietan etxean izango da astelehenetik ostiralera artean, 18:00etatik 20:00etara irekita.

formazio gehiagorako edota izena emateko deitu 943 44 08 63 telefono zenbakira.

URRIAK 11 (larunbata)

• MENDIA.

Marborera (Pirinioak) bi egunetako mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Aurrez izena eman behar da Lagun Onak MBren egoitzan.

• TREN MUSEOA.

Burnibidearen Euskal Museoaren 8. urteurrena ospatuko da eta horrekin batera Burnibidearen Lagunen Eguna. Burnibidearen Euskal Museoan. Lurrinezko Trena Lasara. Burnibidearen Euskal Museoan. 12:30ean.

URRIAK 12 (igandea)

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko Trena Lasara. Burnibidearen Euskal Muse-

oan. 12:30ean aterako da trenak.

URRIAK 17 (ostirala)

• DEIALDIA.

Parrokiko Sendotza taldearen deialdia, partehartzea bultzatzeko. 17 urtetik gorakoentzat. 21:00etan, parrokiako lokalean.

URRIAK 18 (larunbata)

• ARGAZKIGINTZA.

Argazkigintza ikastaroa. Kutxak antolatuta. 29 urtetik beharoko gazteei dago zuzendua. Abenduaren 13a arte izango da ikastaroa, larunbatetan, Azpeitiko Argazki Elkartearen. Informazio gehiagorako edota izena emateko 943 44 08 63 telefono zenbakira deitu behar da.

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko Trena. Burnibidearen Euskal Museoan. 12:30-ean eta 18:00etan.

URRIAK 19 (igandea)

• LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko Trena. Burnibidearen Museoan. 12:30ean.

URRIAK 21 (asteartea)

• SUKALDARITZA.

Sukaldaritza ikastaroa hasiko da. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta. Abenduaren 16a arteko ikastaroa izango da. Irakaslea Ander Oruesagasti

Biele

PEMEC

kutxa
gizarte ekintza

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



IPUIN KONTAKETA. Udal Liburutegiak aurtengo ikasturteko ipuin kontaketa sortari heldu zion irailean. Urriaren 21ean Pello Añorga ipuin kontalaria izango da Enparan etxeko Udal Liburutegian. Lehen hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoei zuzendua izango da.

izango da. Ikastaroaren prezioa 55 eurokoa da. Eta ikasle edo gazte txartelarekin 45 euro. Asteartetan izango da 18:30etik 20:30ak arte. Zapo Txoko Gaztegunean.

● **TXALAPARTA.**

Txalaparta ikastaroa hasiko da. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta. Abenduaren 16a arte izango da ikastaroa, asteartetan, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea Mikel Aveiro izango da. Ikastaroaren kostua 21 eurokoa izango da eta 18 eurokoa ikasle edo gazte txartelarekin. Zapo Txoko Gaztegunean.

● **DANTZA GARAİKIDEA.**

Dantza garaikidearen ikastaroa hasiko da. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta. Irakaslea Silvia Clemente izango da. Ikastaroa abenduaren 23a arte izango da, asteartetan, 18:30etik 20:30 arte. Ikastaroaren prezioa 21 eurokoa da eta 18 eurokoa ikasle edo gazte txartelarekin. Sindikatu Zaharrean.

URRIAK 22 (asteazkena)

● **AFRIKAKO DANTZAK.**

Afrikako dantzen ikastaroaren hasiera. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta. Irakaslea Arantxa Iglesias izango da. Abenduaren 17a arte, asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara. 21 euro kostatuko da eta 18 euro ikasle edo gazte txartelarekin. Zapo Txokon.

URRIAK 23 (osteguna)

● **CHI-KUNG.**

Chi-Kun ikastaroaren hasiera izango da. Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta. Abenduaren 18a arte izango da ikastaroa. Prezioa 21 eurokoa da eta ikasle edo gazte txartelarekin 18 eurokoa. Ostegunetan izango da 18:00etatik 20:00etara. Zapo Txoko Gaztegunean.

URRIAK 24 (ostirala)

● **ANTZERKIGINTZA.**

Antzerki ikastaroa. Kutxak antolatuta. 29 urtetik beherakoei zuzendua. Ikastaroa 2004ko maiatzaren 7a arte da ostiraletan. Zapo Txokon. Izena emateko, 943 44 08 63.

URRIAK 25 (larunbata)

● **YOGA.**

Yoga ikastaroa. Kutxak antolatuta. 29 urtetik beherako gazteei dago zuzendua. Urriarriak 24 arte izango da ikastaroa, larunbatetan. Eki eskolan. Informazio gehiagorako eta izena emateko deitu 943 44 08 63 telefono zenbakira.

● **LURRINEZKO TRENA.**

Lurrinezko Trena. Burnibidearen Euskal Museoa. 12:30ean eta 18:00etan.

URRIAK 26 (igandea)

● **MENDIA.**

Bolibar-Aitzorrotz gazetxentzako irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 08:30ean plazatik.

URRIAK 29 (asteazkena)

● **ODOL EMATEA.**

Odol emate eguna. Gipuzkoako elkarteak deituta. 18:30-21:00. Anbulatorioan.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarriaren helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarrria@topagunea.com

BETIDANIKO SUKALDARITZA

PARRILA. Arraina eta haragia

BI JANGELA. 60 eta 25 pertsonentzako tokia

ON EGIN!

Pablo VI Auzunea, 16
Tel.: 943 81 20 40
20730 AZPEITIA

ACADEMIA DE FRANCES
FRANSES AKADEMIA

apunta
zaitez!

15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

aholkulari kontsultariak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa.: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdays.com

Betxi Donde

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOFFIA



ION ARANBURU

“Jendiek gaur egun baserriye afiziyo moduen zaukek”

Miguel Mari Lapeira, *Toalle* edo *Toberagille* baserrikue da. Txikitatik baserriyen bizi da eta beti baserri munduen ibili da lanien. Hasieran basuen, eta orain baserriyen ari da lanien.

● Baserriyen zer lan egiten dek?

Behiyekin, ardiyekin eta behorrekien jarduten diat lanien. Nahiko lan ematen ditek.

● Gaur egun baserriye bigarren mailako ofiziyo bezela ikusten dek...

Jendiek gaur egun baserriye afiziyo bezela zaukek hartute, gustatu egiten zaiebelako. Ganaduek-eta edukitzeko inbertsiyo haundiyek egin beher dituk, instalaziyuetan, terrenuetan eta abar. Askok ganadue etxeko terrenuek garbitzeko edukitzen dik, arazue dek-eta terrenuek garbitzie. Orain terrenuek sobratzen ari dituk eta, ondoriyoz, zikintzen. Jendiek ganadue aprobetxatzen dik terrenue garbiye edukitzeko.

● Hik zergatik hartu huen ofiziyo bezala baserriye?

Txikitetiken gustatu izan zitek. Lehen basuen ibiltzen ninduan, baino gero ganadu gehiyo jarri genian baserriyen, eta orain hemen ibiltzen nauk.

● Produziutekuarekin zer egiten dek?

Nik esnie eta haragiye ateratzen dizkiat. Haragiye Euskal Labelera eramaten

diagu. Txahalak jaiyo ahala kendu egiten dizkiat, bost-sei hilabeterekin.

● Aurtengo udarie oso berue izen dek.

Beruek askoz kalte gehiyo egiten dik. Orain negureko gordeta geneukean jana ari dek jaten ganadue. Udera hontan, gainera, ume galtze edo abortu asko eduki dizkiagu beruegatik.

● Berue danien bero egiten duelako, hotza egiten duenien hotz dalako. Beti kejan zerate...

Egualdiyekin asmatzie zaile dek. Norberan konbenientzire egiten ez bado, inor ez gustora. Nerezako garairik onena udeberriye dek. Ganaduek-eta orduen ateatzen dizkiagu kanpora eta lana lasaiyo egiten diagu. Negen barruen edukitzen dizkiagu, azarotik.

● Aurtengo uderan galera haundiyek egon al dire?

Bai, haundiyek. Ur faltie, jateko faltie... Hemengo ganadue berora ohitu gabe zegok eta gaizki pasatu zian. Baino ez ganaduek bakarrik, jendie ere

gaizki ibili huan. Berora ohitu gabe gatxaudek.

● Eta konpontzeko zer irtenbide?

Aurreko batiyen eduki genian diputaziyo-kekin bilerie eta dirurik ez dagoela esan ziahen. Orain al dan moduen pasatu beher. Baserriko etorkizune horrela zio.

“Ganaduek-eta edukitzeko inbertsiyo haundiyek egin beher dituk”

“Aurtengo uderan egin dituen beruek galera haundiyek sortu dizkik baserriyetan”

Ion Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Txikiteko nere ametsa Argentinara bizitza jutie huan. Ez nauk han bizi baino urtero bertara joaten nauk oporrak pasatzera, otsail inguruen”

BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 82
AZKOITIA
Jose Artebe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98


bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA


**Harategia
Odriozola**
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

JB San Sebastián

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA


KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA,
TFONOA.: 943 811671

KALITATEZKO
**EUSKAL
OKELA**


CARNÉ DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL

KALITATEA



Santi Lazkano Kirolak - arropak, oinetakoak, motxilak eta bestelakoak



Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



Babesa
gazte moda

Udazkena - Negua

DESBERDINDU ZAITEZ!!!

Zanituandei auzuen gatzandean! Urbiarre 9 Tel 943 1513610